




# Hezkuntza laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleentzako hezkuntza arreta (2018-2022)



*2022ko urria*



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA



## AURKIBIDEA

LABURDURAK .....	3
I. SARRERA .....	4
II. ALDERDI OROKORRAK .....	5
II.1. Berariazko hezkuntza premiak .....	5
II.2. Berariazko hezkuntza premiak Nafarroan .....	6
III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK .....	12
IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK .....	19
V. ERANTZUKIZUNA .....	22
VI. FISKALIZAZIOAREN EMAITZAK .....	24
VI.1. Aniztasunari erantzuteko neurrien antolaketa- eta metodologia-esparrua .....	24
VI.2. HLBPlen berariazko hezkuntza premietarako hezkuntza erantzuna .....	32
VI.3. Ikastetxeak baliabide profesionalez hornitzea .....	49
1. ERANSKINA APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA .....	58





## Laburdurak

**IA** Ikasgela alternatiboa.

**AGH** Adimen gaitasun handiak.

**EH** Entzumen eta Hizkuntzako irakaslea.

**HLBPI** Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak.

**NHBBZ** Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa.

**NFK** Nafarroako Foru Komunitatea.

**HBBI** Hezkuntza Bereziko berariazko ikastetxea.

**IBZ** Ikasteko berariazko zailtasunak.

**HLE** Hezkuntza Laguntzako espezialista.

**DBH** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

**LHB** Lanbide Heziketa Berezia.

**BS/BP** Hezkuntza sistemara berandu sartzea edo/eta baldintza pertsonalak edo eskola historiarenak.

**LOE 2/2006** Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa.

**LOMCE 8/2013** Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko.

**LOMLOE 3/2020** Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.

**MEC** Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa.

**HPB** Hezkuntza premia bereziak.

**PT** Pedagogia Terapeutikoko irakaslea.

**IN** Ikaskuntzaren nahasmendua.

**ADN-H** Arreta-defizitaren nahasmendua eta hiperaktibitatea.

**HBT** Helduaroko bizimodurako trantsizioa.

**CBU** Curriculum bereziko unitatea.

**TU** Trantsizio unitatea.





## I. Sarrera

Kontuen Ganberak 2021erako bere fiskalizazio programan sartu zuen txosten bat egitea hezkuntza laguntzako berariazko premiei buruz.

Txostenak sei atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, hezkuntza laguntzako berariazko premien alderdi orokorrak deskribatzen dira, eta hirugarrenak lanaren helburuak, norainokoa eta mugak biltzen ditu. Laugarrenean konklusio eta gomendio nagusiak azaltzen dira, bosgarrena Hezkuntza Departamentuaren erantzukizunaz eta Kontuen Ganberarenaz ari da, eta seigarrena fiskalizazioaren emaitzez. Gainera, fiskalizatutako gaiari aplikatu behar zaion araudiari buruzko eranskin bat dago.

Lana 2021eko urritik 2022ko apirila bitartean egin zuen auditoretzako bi teknikariek, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Hezkuntza Departamentuko langileei, batez ere Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuari eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroari (hemendik aurrera, NHBBZ).

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko kontseilariari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Era berean, emandako laguntzagatik eskerrak eman nahi dizkiegu hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak (hemendik aurrera, HLBPIak) ordezkatzeko dituzten elkarte eta erakundeei, bai eta fiskalizaziorako laginean hautatutako ikastetxeei ere.





## II. Alderdi orokorrak

### II.1. Berariazko hezkuntza premiak

Espainiako Konstituzioak hezkuntzarako eskubidea aitortzen du oinarritzko eskubide gisa. Hala, adierazten du pertsona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea, irakaskuntza askatasuna aitortzen du, eta xedatzen du hezkuntzaren helburua dela giza nortasuna oso-osorik garatzea, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta oinarritzko eskubideak eta askatasunak errespetatuz. Botere publikoek bermatu behar dute guztien eskubidea heziketa hori jasotzeko.

Espainiako hezkuntza sisteman aniztasunari nola erantzun gaur egun arautzen duen legea Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa da (hemendik aurrera, LOE). Aldatuta dago Hezkuntzaren Kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez (LOMCE) eta abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren bidez (hemendik aurrera, LOMLOE).

Aniztasunari erantzutea hezkuntzako jarduketan multzo bat da, eta jarduketan horiek guztiek dute helburu erantzuna ematea ikasleen askotariko gaitasun, interes, egoera sozioekonomiko eta kultural, hizkuntza-egoera eta osasun-egoerei. Horrela, giltzarri diren gaitasunak garatzen eta hezkuntzako etapetako helburu nagusiak lortzen laguntzen zaie.

LOEk ezarri zuen ezen hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen (HLBPI) hezkuntza premien identifikazioa eta balorazioa lehenbailehen eginen direla eta normalizazioaren eta inklusioaren printzipioei loturik egonen direla.

Hezkuntza eredia joeraz aldatu da: integrazioaren alde egiten zuten politiketatik, desgaitasun motaren bat duten ikasleen inklusioa bilatzen duten beste batzuetara pasatu da. Lege organikoan adierazten da integraziotik harago doala hezkuntza inklusioa, eta, ikasle guztien aniztasunari erantzuteko, beharrezkoa dela ikastetxeen egitura, funtzionamendua eta erantzun pedagogikoa aldatzea, ikasle guztiek parte hartu ahal dezaten eskola bizitzan, ekitatez eta baldintza-berdintasunez.

LOMLOEren II. tituluak (Ekitatea hezkuntzan) ezartzen duenez, HLBPIen eskolatzea printzipio hauei jarraituz arautu behar da: inklusioa eta parte-hartzea, kalitatea, ekitatea, diskriminaziorik eza eta berdintasun eragingarria hezkuntza sisteman sartzeko eta irauteko, eta irisgarritasun unibertsala ikasle guztientzat.

Printzipio horiekin bat, HLBPIak ohiko ikastetxeetan eskolatuko dira, eta, aldiz, Hezkuntza Berezikoko berariazko ikastetxeetan (hemendik aurrera, HBBI)





eskolatuko dira soilik beren ezaugarri bereziengatik edota desgaitasun maila-  
rengatik ohiko ikastetxe batean integrazio araubidean ase ezin diren hezkuntza  
premiak dituzten ikasleak.

## II.2. Berariazko hezkuntza premiak Nafarroan

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren  
10eko 13/1982 Lege Organikoan ezartzen denez, Nafarroaren eskumena da  
irakaskuntza arautzea eta administratzea maila, gradu, modalitate eta espezia-  
litate guztietan, ezertan ukatu gabe Konstituzioan arlo honi buruzko agindue-  
tan ezarritakoa, horiek garatzen dituzten lege organikoak eta Estatuak dituen  
eskumenak, ikasketa eta lanbide tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko  
baldintzak arautzeari eta horiek bete eta bermatzeko goi mailako ikuskapena  
egiteari dagokienez.

Nafarroako Foru Komunitateak (hemendik aurrera, NFK) ez du foru lege  
baten bidez garatu gai hau; funtsean, honako xedapen hauetan dago jasorik gai  
honen gaineko araudia:


- 93/2008 Foru Agindua, ekainaren 13koa, Hezkuntzako kontseilariak  
emana, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bi-  
garren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duena.  
Ezartzen du aniztasunari erantzuteko zer neurri aplikatu behar diren ikastetxe-  
etan, jada aipatutako etapetan, premia bereziak dituzten ikasleentzat, gaitasun  
handiak dituzten ikasleentzat eta hezkuntza sisteman berandu sartzen diren  
edo/eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleentzat.

- 65/2012 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Hezkuntzako kontseilariak  
emana, ikastearen nahasmenduengatik eta arreta faltagatik nahasmenduaren-  
gatik (hiperaktibitatearekin) hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman  
beharreko erantzuna arautzen duena Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan,  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan,  
NFKn. Foru agindu hori 93/2008 Foru Aginduaren osagarria da.

HLBPIei arreta emateko prozeduraren esparrua Hezkuntzako zuzendari na-  
gusiak ebazpen bidez onetsitako jarraibideetan jasotzen da (hemendik aurrera,  
Jarraibideak). Ikasturte bakoitzerako, haiek arautzen dituzte Haur Hezkun-  
tzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxiler-  
goko ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua. Hezkuntza premia bereziak  
dituzten ikasleak eskolatzeko informazioari eta orientabideei buruzko gidak  
(hemendik aurrera, Orientazio Gida) argibideak ematen ditu eskaintzen diren  
eskolatze modalitateez eta antolaketa neurriez, bai eta ikasle horiei hezkuntza  
arreta emateko irizpide eta prozedurez ere.

Arau esparruaren xehetasunak 1. eranskinean jaso dira.







### *Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia*

Zuzendaritza horren barruan dagoen Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetza Zerbitzua da HLBPIentzako arretaren ardura duen organoa.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 267/2019 Foru Dekretuan arautzen dira zerbitzu horren antolaketa eta funtzionamendua; dekretu horrek zerbitzuaren eginkizunak ezartzen ditu, eta hauek dira, besteak beste:

- HLBPIei buruzko araudia prestatu eta Hezkuntza Departamentuari proposatzea, zuzendaritza nagusiko beste zerbitzuekin batera, baita orientazio departamentuen orientazio lanari buruzko araudia ere.
- Ikasle guztien inklusioa bultzatuko duten programak planteatzea eta garatzea, jatorri edo ezaugarrietan bereizketarik egin gabe.
- Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa (NHBBZ) kudeatzea.
- Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei laguntzarekin zerikusia duten jarduketak eta programak planifikatzea eta departamentuan bertan eta beste departamentu, zerbitzu, erakunde eta entitate batzuekin koordinatzea.

Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetza Zerbitzuak baditu, NHBBZ zentroaz gain, Inklusio Atala (eta horren barnean Inklusio Proiektuetarako Bulegoa, Eskola Orientabiderako Bulegoa eta Hezkuntza Premien Bulegoa), Hezkuntza Bereziko zenbait ikastetxe eta gutxiengo kulturalen zenbait unitate, beste unitate organiko batzuen artean.

#### *II.2.1. Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen errolda edo erregistroa*

Hezkuntza Departamentuak eskola informazioa kudeatzeko darabilen sistema informatikoak EDUCA du izena. Haren bidez errazten dira hezkuntza prozesuaren kudeaketa, administrazioa eta parte hartzen dutenen arteko komunikazioa (irakasleen, familien, ikasleen, ikastetxearen eta Hezkuntza Departamentuko unitate teknikoaren artekoa).

EDUCA kudeaketa programa horretan HLBPIen errolda dago, HLBPI moduan sailkatu eta orientabide zerbitzuek baloratu dituzten ikasleen gaineko informazioa biltzeko (datu pertsonalak, diagnostikoa, hezkuntza erantzuna, emaitza akademikoak, laguntza, hezkuntza neurriak eta abar).

Erroldan bildutako informazioa ikastetxean bertan erregistratzen eta kudeatzen da, eta orientazioko langileen ardurapean dago.







Erregistro horren helburu nagusiak dira HLBPIak detektatzen laguntzea, hezkuntza erantzunaren planifikazioa hobetzea eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetan aniztasunari erantzuteko lanaren jarraipena egin ahal izatea. Halaber, ikasleak kurtsoz, etapaz edo ikastetxez aldatzean, aniztasunari koherentziaz erantzuten laguntzen du informazioa trukatzeko prozesuan.

Errolda funtsezko garrantzia duen tresna da. Hura egoki betez gero, ikastetxeen egoera aztertu ahal da, ikastetxeen beharren arabera banatu ahal dira giza baliabideak eta materialak, eta HLBPIak eskolatzeko banaketa antolatu ahal da matrikulazio prozesuan.

Badago errolda betetzeko gida bat: “EDUCA kudeaketa-programako gida HLBPIen fitxak eguneratzeko” (hemendik aurrera, EDUCA Gida). Gida horretan biltzen dira hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak erroldan sartzeko irizpideak eta ikasle horiek detektatu eta identifikatzeko prozedura komunak. Gida hori 2018-2019 ikasturterako egin zen eta ez da eguneratu.

Aurrekoa dela-eta, adierazi behar dugu Educa Gida eguneratu egin dela 2022ko irailean. Txosten honek dakartzan zenbait gomendio erantsi zaizkio eta 2022-2023 ikastaroari aplikatuko zaio, baina aldi hori txosten honen denbora-eremutik kanpo dago.

### **Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen tipologia**

93/2008 Foru Aginduak eta 65/2012 Foru Aginduak HLBPIen tipologia hauek definitzen dituzte:

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. Eskolatzaldi osoan edo zati batean, hezkuntzarako laguntza eta arreta berariazkoak behar dituzte, desgaitasun fisikoa, psikikoa nahiz zentzumenezkoa (entzumena edo ikusmena) edo portaeraren nahasmendu larriak izateagatik.
- Adimen gaitasun handiko ikasleak. Ikasle hauentzat ez dira egokiak adin-kideen kurtsoko helburuak eta edukiak, eta hezkuntza premia bereziak dituzte beren adimen gaitasun handiagatik, edo zenbait ikasgai goiz ikasi dituztelako, edo trebetasun berezia nahiz sormen handia dutelako zenbait arlotan (arte, musika, matematika, hizkuntza etab.), ikasteko motibazio handiarekin batera, batzuetan.
- Hezkuntza sisteman berandu sartzen diren edo/eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleak. Beste herrialde edo autonomia erkidego batzuetatik etorrira sartzen dira gure hezkuntza sisteman, eta zenbaitetan ez dakite curriculumeko hizkuntza, edo/eta atzerapena dute curriculumeko oinarrizko gaitasunen garapenean.





• Ikasteko berariazko zailtasunak dituzten ikasleak. Hezkuntza laguntzako premiak dituzte, arreta-defizitaren nahasmendua eta hiperaktibitatea (ADN-H) eta ikaskuntzaren nahasmenduak (IN) izateagatik. Nahasmendu horiek zailtasun espezifikoak sortzen dituzte irakurketan, idazketan, arrazoiketan edota matematikako trebetasunetan, eta ondorio nabarmenak eskolako ikaskuntzan.

Aurrekoa kontuan harturik, HLBPIen erroldan kategoria bat dago tipologia bakoitzeko:

- 1. kategoria. Hezkuntza premia bereziak (hemendik aurrera, HPB).
- 2. kategoria. Adimen gaitasun handiak (hemendik aurrera, AGH).
- 3. kategoria. Hezkuntza sistemara berandu sartzea edo/eta baldintza pertsonalak edo eskola historiarenak (hemendik aurrera, BS/BP).
- 4. kategoria. Ikasteko berariazko zailtasunak (hemendik aurrera, IBZ).

1., 2. eta 4. kategorien barruan azpikategoriak edo ardatz diagnostikoak daude. Hona hemen:

<b>1. kategoria (HPB):</b>
Entzuteko desgaitasuna*
Adimen desgaitasuna
Mugitzeko desgaitasuna*
Ikusteko desgaitasuna*
Garapenaren atzerapen orokorra
Autismoaren espektroko nahasmendua*
Portaeraren nahasmendu larria*
<b>2. kategoria (AGH):</b>
Adimen gaitasun handiak
<b>4. kategoria (IBZ):</b>
Portaera erregulatzeko zailtasunak
Osasuneko beste diagnostiko batzuk*
Hizkuntzaren nahasmendua
Ikaskuntzaren nahasmendua
Arreta-defizitaren nahasmendua eta hiperaktibitatea (ADNH)*

\* Txosten medikoa behar dute erroldan sartzeko

Bestalde, 3. kategoria (BS/BP) gainerako kategoriekin bateragarria da. Erroldan sartzeko arrazoien arabera (horiek ere elkarrekin bateragarriak dira) azpikategoria hauek ditu:

- Hezkuntza sisteman berandu sartzea
- Hizkuntza ez jakiteak eragindako zailtasunak izatea
- Eskolatzte irregularra edo/eta absentismoa





- Familia egoera sozioekonomiko ahulean edo/eta gizarte laguntzen mende egotea
- Ikaslea adingabeen gizarte babesaren arloko erakundeen mende egotea

### II.2.2. Erroldaren azterketa eta bilakaera

Datuak etengabe eguneratzen dira EDUCAn. Erroldak 2021eko azaroan zuen egoerari buruzko informazioa lortu da.

Erroldatutako HLBPI ikasleek bilakaera hau izan dute, tipologiaren arabera, azken lau ikasturteetan:

Kategoria	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021
1-HPB	2.563	2.456	2.499	2.613
2-AGH	434	548	608	825
3-BS/BP <sup>1</sup>	13.654	13.680	14.087	14.299
4-IBZ	7.086	7.907	8.549	9.734
HLBPI, guztira	23.737	24.591	25.743	27.471
Matrikulatuak, guztira	89.404	90.577	91.237	90.484
HLBPIak, matrikulatu guztietatik (%)	26,55	27,15	28,22	30,36

2017-2018 ikasturtearen aldean HLBPI ikasleen kopurua ehuneko lau eta ehuneko bost hazi da 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan, hurrenez hurren; eta hazkunde handiena, ehuneko zazpi, 2020-2021 ikasturtean izan du.

Lau urte horietan gehien igo diren kategoriak AGH eta IBZ dira (ehuneko 90 eta ehuneko 37, hurrenez hurren).

Matrikulatutako ikasle guztietatik, 2020-2021 ikasturtean ehuneko 30 izan dira HLBPI ikasleak. Ehuneko handia da beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta, eta BS/BP gisa erroldatutako ikasleei zor zaie; izan ere, kategoria horretakoak HLBPI guztien ehuneko 52 dira.

<sup>1</sup> BS/BP kategoriak beste ezekin kategoriatan ez dauden ikasleak biltzen ditu.





### III. Fiskalizazioaren helburuak, norainokoa eta mugak

Lan honen helburua da ebaluatzea nola erantzuten zaion aniztasunari funts publikoak zuzenean nahiz itunpeko araubidean jasotzen dituzten ikastetxeetan.

Horretarako, honako helburu hauek zehaztu ditugu, galderetan jasoak:

1. helburua: Ba al da antolaketa- eta metodologia-esparrurik aniztasunari egonkortasunez eta jarraitutasunez erantzuteko?

2. helburua: Egokitzen al zaie hezkuntza erantzuna HLBPIen berariazko premiei?

3. helburua: Hezkuntza administrazioak bermatzen al du ikastetxeek behar diren baliabide profesionalak izatea HLBPIei hezkuntza laguntza eman ahal izateko?

Helburuak zenbait azpihelburutan zatitu dira eta bakoitzerako auditoretza irizpide egokienak definitu ditugu, betetzeari buruzko konklusioak ateratzeko. Hurrengo orrialdeetan aurkezten dira auditoretzako azpihelburuak eta horietako bakoitzerako irizpideak.





## 1. helburua. Ba al da antolaketa- eta metodologia-esparrurik aniztasunari egonkortasunez eta jarraitutasunez erantzuteko?

Azpihelburuak	Irizpideak
1.1. Erroldak errazten al ditu ikastetxeetan aniztasunari erantzuteko plangintza eta Hezkuntza Departamentuaren jarraipena?	Erroldan sartzeko irizpideak  HLBP ikasleen ehunekoa, matrikulatutako ikasle guztiekiko. Konparazioa beste autonomia erkidego batzuekin.
1.2. Laguntzen al du Educa plataformak informazioa trukatzekeo prozesuan, HLBPIak kurtsoz, etapaz edo ikastetxez aldatzean?	Informazio trukea, ikastetxeen lagin batean  Txosten psikopedagogikoen kopurua Educa plataforman, 2020-2021 ikasturteko erroldaren aldean
1.3. Hezkuntza administrazioak errazten al ditu, NHBBZren bitartez, Nafarroan aniztasunari erantzuteko ordenamendua eta antolaketa?	Ikastetxeek zenbat eskaera egin dituzten NHBBZk esku har dezan (orientatzaileak, zaintzaileak eta fisioterapeutasak)  NHBBZren esku-hartzeen kopurua
1.4. Laguntzen al du eskolatze indizeak <sup>2</sup> HLBPIen ekitatezko banaketan?	Ikastetxeen eskolatze indizea 2021-2022 ikasturtean  2021-2022 ikasturterako epez kanpoko matrikulan berresleitu diren ikasleen kopurua

<sup>2</sup> Indize honek HLBPIen eskolatzearen egoera erakusten du ikastetxe bakoitzean, Nafarroako hezkuntza sistemako batezbestekoarekin alderatuta, eta, halaber, ikastetxe bakoitzaren egoera bere eragin-eremuko gainerakoekin alderatuta.





## 2. helburua. Egokitzen al zaie hezkuntza erantzuna HLBPIen berariazko premiei?

### 2.1. Egokitzen al zaie hezkuntza erantzuna hezkuntza premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen beharrei?

Azpihelburuak	Irizpideak
HPBak dituzten ikasleentzako hezkuntza arretaren antolaketak eskola inklusioa errazten al du?	<p>Ikastetxe berezian eskolatuen ehunekoa</p> <p>Ikasgela arruntean eskolatuen ehunekoa, desgaitasun motaren arabera</p> <p>Hezkuntza bereziko unitateen kopurua eta bilakaera</p> <p>Ikasle ratioa hezkuntza bereziko unitate bakoitzeko</p> <p>Pedagogia terapeutikoko irakasleen orduen kopurua ikasgelan eta ikasgelatik kanpo</p>

### 2.2. Egokitzen al zaie hezkuntza erantzuna gaitasun handiko ikasleen berariazko premiei?

Azpihelburuak	Irizpideak
2.2.1. Ongi detektatzen al dira AGH ikasleak?	<p>Detektatutako ikasleen kopuruaren bilakaera.</p> <p>Detekzio ehunekoen eta beste autonomia erkidego batzuetakoen arteko konparazioa.</p>
2.2.2. Hezkuntzako esku-hartzeak emaitza positiboak izan al ditu ikasle horientzat?	<p>Ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean, 2020-2021 ikasturtean</p> <p>Pedagogia terapeutikoko irakasle orduak esleitu zaizkien AGH ikasleen ehunekoa</p> <p>2020-2021 ikasturtean erroldatutako gaitasun handiko ikasleen emaitza akademikoak beren eskola ibilbidean zehar</p>





### 2.3. Egokitzen al zaie hezkuntza erantzuna BS/BP ikasleen berariazko premiei?

Azpihelburuak	Irizpideak
2.3.1. Ongi detektatzen al dira BS/BP ikasleak?	<p>Ikasle horien ehunekoa matrikulatutako ikasle guztiekiko</p> <p>Hezkuntza desabantaila duten ikasleen ehunekoa, HLBPI guztien aldean. Konparazioa beste autonomia erkidego batzuekin</p>
2.3.2. Hezkuntzako esku-hartzeak emaitza positiboak izan al ditu ikasle horientzat?	<p>Ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean, 2020-2021 ikasturtean</p> <p>Errepikatzaileen tasa, matrikulatu guztien aldean</p> <p>Derrigorrezko hezkuntza sisteman irauten dutenak, matrikulatu guztien aldean</p>

### 2.4. Egokitzen al zaie hezkuntza erantzuna ikasteko berariazko zailtasunak dituzten ikasleen beharrei?

Azpihelburuak	Irizpideak
2.4.1. Ongi detektatzen al dira IBZ ikasleak?	<p>Ikasle horien ehunekoa matrikulatutako ikasle guztiekiko</p> <p>Bilakaera, ardatz diagnostikoaren arabera</p> <p>Esku hartuta konpondu ez diren nahasmenduen bilakaera</p>
2.4.2. Hezkuntzako esku-hartzeak emaitza positiboak izan al ditu ikasle horientzat?	<p>Ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean</p> <p>Errepikatzaileen tasa, matrikulatu guztien aldean</p>





### 3. helburua. Hezkuntza administrazioak bermatzen al du ikastetxeek behar diren baliabide profesionalak izatea HLBPIei hezkuntza laguntza eman ahal izateko?

Azpihelburuak	Irizpideak
3.1. Ikastetxeek ba al dute behar adina baliabide profesional HLBPIei arreta emateko?	HLBPIentzako berariazko langileen gastuaren bilakaera, eta itunpeko sarearen eta sare publikoaren arteko xehakapena
3.2. HLBPIentzako baliabide profesionalak modu ekitatibo eta proportzionalen banatzen al dira ikastetxeen artean?	Aniztasunari erantzuteko ordu kopurua lanbide profil bakoitzeko ikastetxe publikoetan, HLBPIei dagokienez  Aniztasunari erantzuteko ordu kopurua lanbide profil bakoitzeko ikastetxe itunduetan, HLBPIei dagokienez  Hezkuntza bereziko unitateei esleitutako pedagogia terapeutikoko irakasle orduen kopurua, eskolatzeko sare bakoitzean  Zaintzaile orduen kopurua ikasle bakoitzeko, eskolatzeko sare bakoitzean  Sare publikoaren eta itunduaren arteko konparazioa: ikastetxe arruntetako ikasgela arruntetan programa bakoitzean esleitutako ordu kopurua, lanbide profilararen arabera

Lanaren norainokoak honako hau hartzen du: HLBP gisa erroldatutako ikasleei hezkuntza orientazioko zerbitzuek emandako arreta, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

Denborari dagokionez, lanaren norainokoak 2017-2018tik 2020-2021era bitarteko ikasturteak hartzen ditu, ezertan galarazi gabe 2021-2022 ikasturtean zenbait alderdi berrikustea, hala nola ikastetxeentzako baliabideen esleipena edo eskolatzeko indizearen eta HLBPIentzako plaza-erreserbaren ezarpena, ikasle horientzako hezkuntza arretaren alderdi berriak denak ere.

Gure lana egiteko, honako informazio hau aztertu dugu:

- Gaiari buruzko araudia, eta funtzionamendurako gidalerroak, ikastetxeek aniztasunari erantzuteko dituzten planak, EDUCA Gida eta orientazio gida.
- HLBPItzat erroldatutako ikasleei dagokienez EDUCA kudeaketa programan dagoen informazioa: diagnostikoak, hezkuntza neurriak, baliabideak etab.







- Informazio ekonomikoa eta aurrekontuei buruzkoa, aniztasunari erantzuteko berariazko lanbide profiletako langileen gastuetarako aurrekontu partiden gainean.
- Irakasle espezialistak dituzten ikastetxeei urtero baliabide profesionalak esleitzeko programa.
- Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak (hemendik aurrera, MEC) unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzei buruz argitaratu duen azken estatistika, 2020-2021 ikasturtekoa.
- Elkarrizketak Hezkuntza Departamentuko arduradunekin eta ikastetxeetako elkarte, irakasle eta arduradunekin.
- Ikastetxe lagin batean (hamabi ikastetxe, titulartasun publikokoak nahiz pribatuak eta hizkuntza modalitate desberdinetakoak) zenbait alderdi aztertzea, zeri-kusia dutenak erroldarekin, informazioaren tratamenduarekin eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen eskura jarritako baliabideekin.

Inguruabar hauek jarri diote muga gure lanari:

- Ez dago HLBPIei arreta emateko aurrekontu esleipenak jasotzen dituen aurrekontu programarik, ezta helburuak zenbateraino bete diren ebaluatu ahal izateko adierazlerik ere.
- Ez dago informazio erregistrorik gai hauetaz: hezkuntzako lantaldeak hezkuntza neurriak ezar daitezten egindako eskaerak, eskaera egiten denetik neurriak ezarri arte batez beste igarotzen den denbora, ebaluazio psikopedagogikoko txostenen kopurua (azken horiek paperezko formatuan daude ikastetxeetan).
- Ezin izan da ebaluatu 1.3 helburua, NHBBZren jarduerari dagokiona, ez dagoelako informazio estatistikorik.
- Ikasleak onartzeari buruz 2021-2022 ikasturterako eman den foru dekretu berriaren eragina dela-eta, ezin izan da ebaluatu 1.4 helburua, HLBPIak ikastetxeen artean banatzerakoan eskolatze indizeak duen eraginari dagokiona. Neurria eraginkorra den jakiteko, zenbait ikasturtetan zehar eskola matrikulak izandako bilakaera aztertu behar litzateke.
- Ezin izan da ebaluatu, 2.1 helburuaren barruan, “irakasle espezialisten orduen kopurua ikasgelan eta ikasgelatik kanpo” auditoretza irizpidea, eskola inklusioa ebaluatzen duena. Izan ere, ikasleak irakasle espezialistarekin esleituta daukan ordu kopurua eta jasotzen duen arreta ez dira beti bat etortzen. Inklusio Zerbitzuak ikastetxeei esleitzen dizkie baliabideak, EDUCA kudeaketa programan ez dira beti eguneratzen datuak, eta irakaskuntza partekatua dagoenean ezinezkoa da irakasle espezialisten orduak kalkulatzeko ikasle bakoitzeko.






- Ezin izan dugu zenbatetsi ikastetxe itunduetako orientatzaileen gastua, ezta ikastetxeetan benetan egin dituzten orduak ere. Hezkuntza itunean ikasgela bakoitzeko ordu kopuru teoriko bat esleitzen da, baina ikastetxeak ez dauka zertan kopuru hori kontratatu. Hezkuntza Departamentuan ezin izan digute eman datu hori.
- Ezin izan dugu ebaluatu 3.1 helburua, Hezkuntza Departamentuak ez duelako jartzen irakasle espezialisten orduen ratorik ikasgela edo HLBPI bakoitzeko.

Ganbera honek nabarmendu nahi du ikastetxe publikoetan aniztasunari erantzuteko langile espezialisten gastuaren zenbatespen bat erabili dela gastu hori aztertzeko, hezkuntzako langileen aurrekontu partida orokorrari egozten zaiolako gastu hori. Zenbatekoak kalkulatzeko oinarritzat hartu dira lanbide profil bakoitzean esleitutako orduak eta profil horretako orduaren batez besteko soldata-kostua; Hezkuntzako Departamentuak eman ditu bi datuak. Uste dugu datu horiek ez direla nabarmen urruntzen errealitatetik. Beraz, gure konklusioak ez lirateke funtsean aldatuko.





#### IV. Konklusioak eta gomendioak

Aniztasunari erantzun behar zaio ikasleek elkarren artean desberdintasunak dituztelako, dela jatorrizko kultura edo ingurune sozialean, dela gaitasun, interes edo motibazioetan.

Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei hezkuntza erantzun egokia emateak ez du esan nahi hezkuntza orokorretik bereiz erantzun desberdina ematea haiei, baizik eta eskola sistemaren laguntza baliabideak pixkanaka halako moduan antolatzea non laguntza pedagogikoak egokitu ahalko baitira ikasleek hezkuntzaren helburu orokorrak lortzeko izan ditzaketen berariazko premietarako.

Ikastetxeek badute beren autonomia tartea ikasle guztiei hezkuntza eskaintzeko, kalitatezko eta ekitatezko esparru batean; hau da, badute beren antolaketari eta beren jardunbideari buruz erabakitzeke ahalmena. Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei baliabideak eta bitartekoak eman behar dizkie beren jarduera garatu eta helburu hori bete ahal izan dezaten.

Hezkuntza Departamentuko Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuen ardurapean dago berariazko laguntza premiak dituzten ikasleentzako arreta. Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroa zerbitzu horren barruko unitate organiko bat da, eta ikastetxe guztiak koordinatzeko eta sostengatzeko zentro gisa dihardu.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan aniztasunari erantzuteko jarritzen diren baliabideen kudeaketari buruz egindako azterketatik honako konklusio hauek atera ditugu:

- 2020-2021 ikasturtean, Nafarroan 27.471 ikasle zeuden erroldatuta HLBPI gisa (hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituen ikasle gisa). Ikasle guztien ehuneko 30 dira. Azken hiru urteetan ikasle horien kopurua ehuneko 16 handitu da.

- Ehuneko 52 dira berandu sartutako edo/eta egoera sozial ahuleko ikasleak; ehuneko 35, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak; ehuneko 10, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak; eta ehuneko 3, gaitasun handiko ikasleak.

- HLBPIen matrikulen banaketa ez da homogenea, ehuneko 75 ikastetxe publikoetan matrikulatuta baitaude. 2020-2021 ikasturtean, ikastetxe itunduetan matrikulatu dira ikasle guztien ehuneko 36, baina HLBPI gisa erroldatutako ikasleen ehuneko 25 soilik. Oreak falta horren arrazoi nagusia berandu sartzen diren edo/eta egoera sozial ahula duten ikasleen banaketan datza.

- Ikasleen banaketa orekatua bermatu nahian, Hezkuntza Departamentuak 2021-2022 ikasturtean martxan jarri du eskolatze indizea, ikastetxeetan HLBPIek duten presentzia erakusten duena. Gaur egun ezarpen fasean dago, eta hezkuntza





laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen presentzia ikastetxeen artean orekatzea du helburu. Ikasleak onartzeko prozesua behar bezala aplikatu dadin arduratzen diren organoak tokiko eskolatze batzordeak dira, eta Hezkuntza Departamentua, berriz, Iruñerriko eragin eremurako.

- EDUCA kudeaketa programan, HLBPI ikasleen erroldak helburu nagusia du hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak detektatzen laguntzea, hezkuntza erantzunaren planifikazioa hobetzea eta ikastetxeetan Hezkuntza Departamentuak jarraipena egin ahal izatea aniztasunari erantzuteko neurriari. Errolda horrek sekulako garrantzia hartu du, ikastetxeen errealitatea zehatz-mehatz ezagutzeko ere balio duelako, eta hartara giza baliabideak eta materialak ikastetxeen beharren arabera banatzeko. HLBPIen eskolatzea ere modu egoki eta orekatuan banatu behar da.

- Ikusi dugu erroldako irizpideak ez direla ikastetxe guztietan homogeneousak “hezkuntza sistemara berandu sartzeari edo/eta baldintza pertsonalak edo eskola historiarenak” kategoriarako. Izan ere, Nafarroako Gobernuak ez du jarraibide argirik ematen, nahiz eta berak koordinatzen dituen inplikaturako departamentuak, Hezkuntzako, Eskubide Sozialetako eta Ekonomia eta Ogasuneko departamentuez gain. Ondorioz, erroldak ez du islatzen ikastetxeen errealitate objektiboa kategoriatan horretan, zeinak hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasle erroldatuen erdiak hartzen baititu.

- Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren (NHBBZ) eginkizuna da ikastetxeak koordinatzea eta ikastetxeen laguntzea, haien hezkuntza erantzunaren irizpideak bateratuz. Ez du plantilla egonkorrik, ordea, nahiz eta halako plantilla batek haren funtzionamendua hobetuko lukeen eta hezkuntza komunitatearentzat erreferentzia gune bilaka lezakeen. Hain zuzen ere, zentroko 80 profesionalatik 17 soilik daude haren plantilla organikoan. Gainerako lanpostuak zerbitzu eginkizunen bidez betetzen dira.

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntza arreta ikastetxe arruntetan emateak erraztu egiten du eskola inklusioa. Ikasle horiek, oro har, ikasgela arruntan matrikulatzen dira, salbu eta adimen desgaitasuna edo autismoaren espektroko nahasmendu larria dutenak. Premia horiek dituzten ikasleak hezkuntza bereziko unitateetara joaten dira, baina bermatu egin behar da erreferentziako ikasgeletan integratuko direla<sup>3</sup>. Ikastetxeetan aniztasunari erantzuteko planetan proposaturako integrazio mailaren jakitun da Hezkuntza Departamentua, baina ez du ebaluatzen noraino betetzen diren plan horiek.

- Ez da ebaluatzen ea hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen integrazioaren gaineko hezkuntzako esku-hartzea emaitza positiborik lortzen

---

<sup>3</sup> Erreferentziako ikasgelan eskoletara joan daitezke ikaskideekin, eduki praktikoa eta ludikoa duten ikasgaietan, eta parte har dezakete eskolaz kanpoko ekitaldietan.





ari den. Berez, ez dago jasorik horretarako helbururik jarri denik, ezta jarraipena egiten denik ere.

- Ikastetxeentzako baliabide profesionalen finantzaketa konplexua da lanbide profil guztietarako, eta desberdina ikastetxe publikoetan eta itunduetan. Ikastetxe publikoentzako finantzaketa kalkulatzeko, urteko orduen zenbatespena egiten da aurreikusitako bilakaeran oinarrituta. Ikastetxe itunduetan, aldiz, urteroko deialdi publikoaren bitartez finantzatzen da irakasle espezialisten kontratazioa (pedagogia terapeutikoko maisu-maistrak, entzumen eta hizkuntzako maisu-maistrak eta guxtiengo etniko eta kulturei laguntzeko irakasleak). Deialdi hori finantzatzeko gastua Gobernuaren erabaki bidez onesten da. Nahiz eta ikastetxeei irakasle orduak banatzeko irizpideak objektiboak diren, hau da, matrikulatutako HLBPI ikasleen eta horiei lotutako hezkuntza neurrien arabekoak diren, deialdian ezarritako zenbatekoak mugatzen du ordu horien esleipena. Beraz, ikasleria eta neurriak berdinak izanik, sare itunduan urriagoa da irakasle horien hornidura.

- Aplikatu beharreko araudiarekin bat, hezkuntza administrazioek hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleen proportzio orekatua ezarri behar dute ikastetxe publiko eta itunduetako bakoitzean eskolatu behar direnen artean. Hortaz, ikastetxeentzako giza baliabideen finantzaketak bat etorri beharko du banaketa horrekin eta profesionalen ratio bat finkatu beharko du ikasleko eta hezkuntza neurriko, ikastetxearen titulartasuna gorabehera, eta, betiere, kontuan izanda ikastetxearen testuingurua, dagokion indizeak zehazten duena.

- Irakasle espezialisten gastua ez da jasotzen gainerako irakasleengandik bereizitako aurrekontu partidetan. Baliabide profesionalen 2020-2021 ikasturteko kostu zenbatetsia 51 milioi da, itunpeko sareko orientatzaileen kostua kontuan hartu gabe. Kostu horrek barruan biltzen du NHBBZren, hezkuntza bereziko ikastetxeen eta ikastetxe arrunten finantzaketa.

Ateratako konklusioak kontuan hartuta, jarraian, aztertutako kudeaketa hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen *gomendioak* azaltzen ditugu:

Ikastetxeentzako baliabide profesionaleri dagokienez

- *Nafarroako hezkuntza administrazioak behar diren baliabideez hornitzea ikastetxeak, bat etorritik Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan ezarritakoarekin, ikasleen aniztasunari erantzunen zaiola bermatzeko, eta, bereziki, arreta emanen zaiela hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituztenei, hala sare publikoan nola itunpeko sarean.*

- *Irakasle espezialisten ordu ratioak ezartzea erroldaren arabera, eta, ratio horiek eta ikastetxeko ikasleen errolda oinarri harturik, ikastetxeak baliabidez hornitzea, kasuan kasuko ikastetxearen indizeak zehazten duen testuingurua aintzat harturik.*





Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen erroldari dagokionez:

- *Hezkuntza Departamentuak gehiago kontrolatzea EDUCA errolda, bai eta horren jarraipen eta gainbegiratze lanak ere.*
- *Jarraibide eta xedapen arauemailetan argi zehaztea HLBPIen erroldarako irizpideak, erroldak funtsezko garrantzia baitu ikastetxeek zer behar duten eta zer laguntza eman behar zaien ebaluatzeko.*
- *EDUCAREN erabilera areagotzea HLBP ikasleen dokumentazioa kudeatzeko tresna gisa ikastetxe guztietan.*
- *EDUCA Gidan adierazitakoa bete dadin, zenbait muga edo murrizketa jasotzea EDUCAN; esaterako, ez onartzea ikasleen erroldan alta ematerik txosten psikopedagogikorik egin gabe, hori nahitaezkoa denean, edo diagnostiko jakin batzuetarako gutxieneko adina ezartzea.*

NHBBZri dagokionez:

- *NHBBZren espezializazioa sustatzea, erreferentzia zentro espezialista gisa, ikastetxeen lanean lagun dezan, plantilla aditua eta egonkorra izanda.*
- *NHBBZren araudia eguneratzea.*
- *NHBBZren jardueraren erregistro zentralizatua sortzea.*

Eskolatze indizeari dagokionez:

- *Tokiko eskolatze batzordeen irizpideak bateratzea epez kanpoko matrikulan berresleitutako ikasleentzat.*

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza laguntza antolatzeari dagokionez:

- *Hezkuntza bereziko unitateetan dauden HPB ikasleak erreferentziazko ikasgeletan zenbateraino integratzen diren neurtzeko adierazleak diseinatzea.*

## **V. Erantzukizuna**

*Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna*

Hezkuntza Departamentuaren erantzukizuna da Nafarroako ikastetxeetan aniztasunari erantzutea Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapa guztietan.

Hezkuntza Departamentuak bermatu behar du egindako kudeaketa-jarduerak eta -eragiketak bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta behar diren mekanismoak ezarri behar ditu proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezen eta





helburu horiek lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezten, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezarrita.

### *Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarritutako konklusioak adieraztea, ikasleen hezkuntza laguntzako berariazko premiei erantzuteko baliabideen kudeaketa dela-eta.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako fiskalizazio printzipio orokorren arabera, ISSAI-ESen ezarrita-koak, eta batez ere fiskalizazio operatiboari buruzko ISSAI-ES 300 araua aplikatu dugu, bai eta fiskalizazio operatiboaren garapenari buruzko ISSAI-ES 3000 eta 3100 arauetan jasotako jarraibideak eta kanpo kontroleko organoen fiskalizazio gidak ere (GPF-OCEX). Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako konklusioak oinarritutako dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du ateratako konklusioei funtsa emateko, ebaluatu ezin izan ditugun zenbait azpihelburutan izan ezik.





## VI. Fiskalizazioaren emaitzak

### VI.1. Aniztasunari erantzuteko neurrien antolaketa- eta metodologia-esparrua

**1. helburua.** Ba al da antolaketa- eta metodologia-esparrurik aniztasunari egonkortasunez eta jarraitutasunez erantzuteko?

#### 1.1. Erroldak errazten al ditu ikastetxeetan aniztasunari erantzuteko plangintza eta Hezkuntza Departamentuaren jarraipena?

EDUCA Gidan jarraibideak ematen dira erroldako datuen kudeaketari, erroldatzeko baldintzei, berrikuspenari eta bajari buruz, eta kudeaketa programako erroldatzeko arrazoia eta ardatz diagnostikoak definitzen dira.

Ikasle batek zenbait ardatzetako premiak dituenean, ardatz diagnostiko nagusia izanen da ikaslearen beharrak ongien definitzen eta hezkuntza erantzuna gehien justifikatzen duena. Lotutako bi ardatz jar daitezke, gehienez ere.

Ikasle bat edozein ardatz diagnostikotan erroldatzeko, balorazio psikopedagogikoko txostena egin behar da; eta zenbait ardatzetarako ezinbestekoa da txosten medikoa egitea. Txosten hori ez da beharrezkoa BS/BP ikasleak erroldatzeko, eta arrazoi horrengatik erroldan alta emateko irizpideak izan daitezke, EDUCA Gidaren arabera, errenta bermatuaren hartzaile izatea (txostena eskatu behar zaie oinarrizko gizarte zerbitzuei), laguntzen onuradun izatea (jantokia, materiala) eta familiak zailtasun nabarmenak izatea kuotak edota ezohiko jarduerak (txangoak eta abar) ordaintzeko.

Bestalde, erroldatutako ikasleen hezkuntza premiak aldatu egiten dira eskola ibilbidean zehar, eta erantzuna doitzeko aldian behingo berrikuspenak egin behar dira. Berrikuspen horiek nahitaez egin behar dira ikaslea etapaz aldatu aurretik edo azken baloraziotik hiru urte igarotakoan. Ikaslea erroldatik kenduko da baldin eta balorazio psikopedagogikoan ikusten bada jada ez duela txosten psikopedagogikoarekin lotutako hezkuntza laguntzako berariazko premiarik.

#### *Erroldan sartzeko irizpideak*

Irizpide hau ebaluatzeko, begiratu dugu ea EDUCA Gidarekin bat datozen irizpideak erabiltzen diren ikastetxeetan ikasleak erroldatzeko.

- Irizpideen azterketa, bisitatutako lagineko ikastetxeetan:

HPB ikasleen erroldan ez dago arazorik, erroldatzeko txosten medikoa eskatzen delako, oro har. Besterik da gainerako tipologietan.

AGH eta IBZ ikasleak erroldan sartzeko, EDUCA Gidak txosten psikopedagogikoa eskatzen du. Aztertutako laginean egiaztatu dugu ez dutela beti izaten txosten hori, nahiz eta proba diagnostikoak ikastetxe guztietan egon.







EDUCA Gidak honela definitzen du BS/BP ikasleak erroldatzeko arrazoa: “Familia egoera sozioekonomiko ahulean edo/eta gizarte laguntzen mende egotea”. Honako hau da arrazoi horrengatik erroldatutako ikasleen bilakaera:

Ikasturtea	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	Aldea (%) 20-21/17-18
Gizarte eta hezkuntza desabantaila	12.174	12.328	12.443	13.048	7,2
BS/BP, guztira	16.679	16.889	17.504	18.146	8,8
HLBPI, guztira	23.737	24.591	25.743	27.471	15,7
Desabantaila / BS/BP (%)	73	73	71	72	
Desabantaila / HLBPI (%)	51	50	48	47	

BS/BP gisa erroldatutako ikasleen ehuneko 72k badute gutxienez gizarte eta hezkuntza desabantailaren arrazoa erroldan sartzeko 2020-2021 ikasturtean, eta HLBPIen errolda osoaren ehuneko 47 hartzen dute.

Laginaren azterketan, ikasleak arrazoi horrengatik erroldan sartzeko irizpideei erreparatu diegu eta jarraian azaltzen diren emaitzak lortu ditugu:

Irizpidea	Ikastetxe kop.
Ez dute arrazoi horrengatik inor erroldatzen	2
Iruñeko Udalaren laguntzen eskatzaileak	2
Oinarrizko gizarte zerbitzuek igorritako zerrenda	4
Oinarrizko gizarte zerbitzuek egin eta familiak aurkeztutako ziurtagiria	1
Jantokirako laguntzen eskatzaileak	1
Orientatzailearen irizpidea	2

Laginaren azterketatik ondorioztatu ahal dugu ez dagoela irizpide homogeneorik gizarte eta hezkuntza desabantailarengatik ikasleak erroldan sartzeari dagokionez; Hezkuntza Departamentuak ez du jarraibide argirik eman, irizpideak askotarikoak dira, eta, oro har, ez zaie ziurtagiririk eskatzen oinarrizko gizarte zerbitzuei.

- Absentismoaren gaineko jarduketa protokolo berria:

EDUCA Gidak, BS/BP ikasleen atalean, erroldatzeko arrazoi gisa definitzen du “eskolatze irregularra edo absentismoa”. Gidaren arabera, erroldan sartzeko baldintza da ikasleak curriculum atzerapen nabarmena edo horren arriskua izatea ez delako ikastetxera joaten edo modu irregularrean joaten delako, hainbat arrazoi tarteko: familiaren permisibitatea, sasoikako langile edo ferialari familiak, kultura edo erlijio kontuak. Absentismo indizea ehuneko 20 baino handiagoa denean Hezkuntza Departamentuari jakinarazten zaio, jarduketa protokoloa abiaraz dezan.





2022ko urtarrilean martxan jarri da “akonpainamendu eta orientazio unitateen programa”, Europako Next Generation funtsek finantzatua. Programa horren helburua da gizarte hezitzaileak kontratatzea absentismo kasuen jarraipena egiteko, arrazoia aztertze eta banakako jarduketara planak prestatzeko. Programa horrek eroldari nola eragiten dion jakin nahian, azterketa egin dugu programa martxan jarri aurretik eta ondoren:

Titulartasuna	2021eko azaroko errolda	2022ko martxoko errolda	Igoera (%)
Itundua	245	291	19
Publikoa	1.731	1.959	13
<b>Guztira</b>	<b>1.976</b>	<b>2.250</b>	<b>14</b>

Programa horrek eragin du ehuneko 14 handitzea absentismo arriskua duten ikasleen erroldatzea, ikasleen tipologia gorabehera.

- Gomendatutako adinean erroldatutako ikasleak:

a) EDUCA Gidak honela definitzen du AGH ardatz diagnostikoa: hamar urteko adinetik aurrera adimen gaitasun handia duten ikasleak. Goiztiartasunaren ardatz diagnostikoa hamar urtetik beherako ikasleei dagokie, gaitasun handikoentzat aipatutako ezaugarriak dituztenean.

Hona hemen Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta DBHan goiztiartasun diagnostiko okerra egin zaien ikasleen kopurua:

Ikasmaila	2018-2019	2019-2020	2020-2021
Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a	10	27	29
DBH		2	7
<b>Guztira</b>	<b>10</b>	<b>29</b>	<b>36</b>

b) Ikaskuntzaren nahasmendua duten ikasleak erroldan sartzeko, EDUCA Gidak gomendatzen du zortzi-bederatzi urte bete arte ez erroldatzea. Erroldaren datuak azterturik, egiaztatu dugu ardatz diagnostiko horretan ikastetxeen portzentaje handi batean ez zaiola jaramonik egiten gomendio horri.

Gomendatutako adinera iritsi baino lehen erroldatutako ikasleen kopurua honako hau da:

Ikaskuntzaren nahasmendua	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021
Irakurtzen eta idazten ikasteko atzerapena		211	228	301
Irakurketaren nahasmendua	213	121	66	71
Eskola ikaskuntzaren garapenaren nahasmendua	1	106	155	196
Idazketaren nahasmendua	18	9	1	9
Kalkuluaren nahasmendua	7	3	7	6
<b>Guztira</b>	<b>239</b>	<b>450</b>	<b>457</b>	<b>583</b>






Laburbilduz, erroldan sartzeko gomendatutako adinari dagokionez ez dira betetzen EDUCA Gidaren gomendioak, EDUCA kudeaketa programak ikasle horiek erroldatzeko aukera ematen baitu.

*HLBP ikasleen ehunekoa, matrikulatutako ikasle guztiekiko. Konparazioa beste autonomia erkidego batzuekin*

MECek urtero argitaratzen du unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika. HLBPIei buruz argitaratutako azkena 2020-2021 ikasturtekoa da.

Matrikulatutako ikasle guztien aldean, honako hau da erroldatutako HLBPIen ehunekoa autonomia erkidego bakoitzean:



Nafarroa, ehuneko 30arekin, HLBPIen portzentaje handiena duen erkidegoa da. Hori, funtsean, BS/BP ikasleen pisuari zor zaio, baina ez dakigu zer irizpide erabiltzen dituen erkidego bakoitzak kategoria horretarako.

**Laburbilduz**, erroldak HLBPIen plangintza eta jarraipena errazten ditu, baina erroldan sartzeko irizpideak ez dira ikastetxe guztietan berdinak desabantaila sozioekonomikoa duten ikasleentzat, horixe izanik ere erroldan sartzeko arrazoi aipagarriena, eta Nafarroa da tipologia horretan erroldatutako ikasleen portzentaje handiena duen erkidegoa, MECen arabera. Jada azpimarratu dugun bezala, errolda oinarritzat hartzen da irakasle espezialisten baliabideen esleipenerako, bai eta HLBPIen eskolatzearen banaketa orekaturako ere. Hortaz, errolda funtsezkoa da ikastetxeek zer premia dituzten eta zer laguntza behar duten ebaluatzeko.

## 1.2. Laguntzen al du EDUCA plataformak informazioa trukatzeko prozesuan, kurtsoz, etapaz edo ikastetxez aldatzean?

*Informazio trukea, ikastetxeen lagin batean*





Informazio trukearen prozesua aztertu dugu lagineko ikastetxeetan.

93/2008 Foru Aginduaren arabera, aniztasunari erantzuteko printzipio orokorretako bat hezkuntza prozesuaren koherentzia da, eta bermatu behar du ikasleei buruzko informazioa behar bezala eskualdatuko dela ikasleak ziklo edo etapa batetik bestera igarotzen direnean. Halaber, guraso edo legezko ordezkarietara hartzeko bidea eman behar zaie ikasleentzako eskolatzeari eragiten dioten erabakietan.

Informazioa eskualdatzea, proba diagnostikoen gainekoa izan nahiz txosten psikopedagogikoen gainekoa, lagungarria da esku hartzen duten profesionalen arteko koordinazioan, eta hezkuntza erantzun hobea sustatzen du. Informazioa trukatzeko prozesuan hauek bereiz ditzakegu: ikastetxeek informazioa elkarri lagatzea, orientazio departamentuak informazioa irakasleei lagatzea, eta familiei informazioa ematea.

- Ikastetxeen arteko trukeari dagokionez, ikusi dugu ez dagoela uniformetasunik. Ikastetxe batzuetan datuak ez dira lagatzen, telefonoz baino ez dira jakinarazten; beste batzuetan bai, datuak transmititzen dira, paperean nahiz formatu elektronikoan. Azken formatu horretan, posta elektronikoa edo EDUCA plataforma erabiltzen da datuak transmititzeko.

- Orientazio departamentuaren eta arlo eta ikasgaietako irakasleen arteko transmisioari dagokionez, EDUCAk badu orientatzaileentzako funtzionalitate bat, hezkuntza neurriei buruzko informazioa edo bestelako informazio interesgarria partekatzeko aukerarekin zerikusia duena. Laginean bisitatu ditugun ikastetxeetako batak bakarrik erabiltzen du funtzionalitate hori.

- Familiei ematen zaien informazioari dagokionez, ez da ohikoa txosten psikopedagogikoa ematea, ezta ikaslea erroldan sartu dela jakinaraztea ere. Laginean aztertutako 12 ikastetxeetatik 10ek ez zieten erroldatzeen berririk ematen familiei.

*Txosten psikopedagogikoen kopurua EDUCA plataforman, 2020-2021 ikasturteko erroldaren aldean:*

HLBP ikasleen dokumentazioa kudeatzeko tresna ere bada EDUCA. Funtzionalitate hori 2020-2021 ikasturtean ezarri zen.

EDUCAn txosten psikopedagogikoa duten ikasleak	262
HLBPIak, 1.,2.,4. kat., guztira	13.172
EDUCAn txosten psikopedagogikoa duten HLBPIak (%)	2

Erroldan sartzeko txosten psikopedagogikoa behar duten HLBPIetatik ehuneko 2k bakarrik dute txosten hori EDUCA plataforman.

Ikastetxeek, oro har, formatu elektronikoan erabiltzen dituzte txosten psikopedagogikoak, baina ez dituzte EDUCAn jasotzen.





**Laburbilduz**, EDUCA plataformak informazio trukearen prozesuan laguntzen du, baina ez dago uniformetasunik ikastetxeen artean; sistema horrek badiu prozesu horretan lagunduko luketen funtzionalitateak, baina ikastetxeek ez dituzte erabiltzen. Oro har, familiei ez zaie txosten psikopedagogikoari buruzko informaziorik ematen.

### **1.3. Errazten al ditu NHBBZk Nafarroan aniztasunari erantzuteko ordenamendua eta antolaketa?**

Azpihelburu hau ebaluatzeko, NHBBZren esku-hartzea aztertu dugu laginean bisitatutako ikastetxeetan, eta egiaztatu dugu nola parte hartu duen ikastetxeei irakasle espezialisten baliabideak esleitzeko prozesuan.

NHBBZ Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko unitate organiko bat da.

Martxoaren 1eko 76/1993 Foru Dekretuak sortu zuen NHBBZ, orientazioan laguntzeko egitura gisa. Haren jarduna eta esku-hartzea aniztasunari erantzuteko ikastetxeetako arretaren osagarri eta subsidiarioak dira. LOEren azken aldaketa dela-eta NHBBZ eguneratzen duen dekretua zirriborro fasean dago.

NHBBZri dagozkio jarduketa hauek:

- Gidak eta protokoloak sortzea eta etengabe eguneratzea, hezkuntza komunitate osoak kontsultatu ahal ditzan.
- Hezkuntza bereziko ikastetxe eta unitateetan sartzeko eskaeren balorazioan eta eskolatzeko proposamenetan esku hartzea (93/2008 Foru Aginduaren arabera, esku-hartze hori nahitaezkoa da).
- Bere lantalde berariazkoek aholku eta laguntza ematea, ikastetxeetako orientatzaileek hala eskatzen badute, ebaluazio psikopedagogikoa edo/eta eskolatzeko txostena egiteko. Laguntzeko esku-hartzeen ondorioz, giza baliabide gehiagoz hornitu ahal ditu ikastetxeak, nahikorik ez badute.
- Bere fisioterapeuta taldeek arreta ematea ikastetxe publikoetan, arruntetan eta HBIEetan.
- Ikastetxeak irakasle espezialisten eta zaindzaileen baliabideez hornitzeko prozesuan parte hartzen du.

NHBBZ arautzen duen 76/1993 Foru Dekretua zenbait alderditan moldatu beharra dago, zentroaren egiturari eta egungo eginkizunei egokitzuz eta hezkuntza sistemaren premietarako erantzuna eguneratuz, besteak beste.

Zuzendaritza taldeak, zerbitzu orokorrek eta profesional espezialistek osatzen dute NHBBZko langileria. Azken horiek psikikoen, ikusmenekoen, motorren, arreta goiztiarraren eta entzumenekoen esku-hartze taldeak osatzen dituzte. Guztira 80 pertsonak lan egiten dute, eta horietatik 17 daude plantilla





organikoan. Gainerako lanpostuak zerbitzu eginkizunen bidez betetzen dira, apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aplikatuta, NFKAren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duena. Zerbitzu eginkizunen gehieneko epea bost urtekoa da.

Aurreko datuak kontuan harturik, ondorioztatu ahal dugu lanpostuak betetzeko eredu birplanteatu behar dela, langileak txandakatzen diren eredutik bestelako batera pasatuz, zeinean unitate espezializatuek langile iraunkorrak izanen baitituzte, zentroa hezkuntza komunitatearen erreferentzia gisa finka dadin.

#### *Esku hartzeko eskaeren kopurua eta esku-hartzeen kopurua*

Ez daukagu informazio estatistikorik zentroaren jardueraz, ikastetxeek aholku emateko edo esku hartzeko egindako eskaeren kopuruaz edo erantzun zaien eskaeren kopuruaz.

**Laburbilduz**, HHBBZk funtsezko zeregina betetzen du ikastetxe guztiak koordinatzen dituen eta laguntza ematen dien zentro gisa, ikastetxe publikoak nahiz itunduak izan; hezkuntzaren arloko zabalkundea sustatzen du, eta ikastetxeen hezkuntza erantzunari buruzko irizpideak bateratzen ditu. Gainera, irakasle espezialisten baliabideez hornitzeko prozesuan parte hartzen du, eskolatzeko modalitateari buruzko erabakietan esku hartzen du, eta irakasleei laguntzeko azterlanak, gidak eta beste argitalpen batzuk prestatzen ditu. Plantilla egonkorra eman behar zaio, espezializazio handiagoa lor dezan eta hezkuntza komunitatearen erreferentziazko zentro gisa finka dadin. Haren araudia ez dago eguneratuta eta erreformatzeko prozesu bati ekin behar zaio.

#### **1.4. Laguntzen al du eskolatzeko indizeak HLBPIen banaketa orekatuan?**

LOMLOEren testu bategin berriak 87. artikuluan ezartzen duenez, hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatu behar dute administrazioek. Horretarako, ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatu bakoitzean eskolatu beharreko ikasle horien proportzio orekatua ezarriko dute, eta adierazitako laguntza eskaintzeko beharrezkoak diren baliabide profesional eta ekonomikoak bermatuko dizkiete ikastetxeei.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak egindako aldaketen ondorioz, ikasleak onartzeko araudia eguneratu beharra zegoen. Nafarroako Gobernuak eguneratu egin du araudi hori, apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretua onetsiz, bai eta hura garatzen duen maiatzaren 4ko 46/2021 Foru Agindua ere. Azken horren arabera, Hezkuntza Departamentuak teorikoki indize bat egin behar du HLBPIek ikastetxe bakoitzean duten eskolatzeko goera islatzeko.

#### *Ikastetxeen eskolatzeko indizea 2021-2022 ikasturtean*





HLBPIen banaketa orekatua bermatze aldera, Hezkuntza Departamentuak 2021-2022 ikasturteaz geroztik HLBPIen eskolatzeko indizea egiten du urtero, ikastetxe bakoitzean. 2021-2022 ikasturteko indizea EDUCA erroldatik 2021eko apirilean ateratako datuekin egin da, eta baldintza pertsonalak, curriculum atzerapena, hartutako hezkuntza neurriak eta horrelako alderdiak hartzen ditu kontuan. Azken batean, ikastetxeen egoerari buruzko informazioa ematen du. Urtero ikastetxe guztien eskolatzeko indizeak argitaratzen dira, Hezkuntzako zuzendari nagusiak onartze prozesua arautzeko ematen duen ebazpenaren eranskin batean.

Batez besteko indizea zero da. Ikastetxe batean indizea negatiboa bada, HLBP ikasleen presentzia batez bestekoaren gainetik dago, eta indizea positiboa bada, HLBP ikasleen presentzia batez bestekoaren azpitik dago.

Ikastetxeak banaka hartu eta bakoitzaren indizea kalkulatu da, zein zonan dagoen kontuan hartu gabe. Errolda orokor bat argitaratzen da Nafarroa osorako, eta eskolatzeko taulak eragin-eremura argitaratzen dira. Honako hau da ikastetxeen egoera, indizeari dagokionez:

Titulartasuna	Ikastetxe kop.	Indize negatiboa dutenak (%)	Indize positiboa dutenak (%)
Itundua	78	27	73
Publikoa	105	50	50

*Iturria: Onartzeari buruzko ebazpenaren eranskineko taulak, 2021eko maiatzaren 13ko NAO.*

Ikastetxe itunduen ehuneko 73k eta publikoen ehuneko 50ek HLBPIen indize positiboa dute, hau da, aniztasun gehiago har lezakete.

Hizkuntza ereduaren arabera egiten badugu azterketa, gaztelaniazko irakaskuntzako hizkuntza ereduaren ehuneko 43k dute indize positiboa eta euskarazko irakaskuntzako hizkuntza ereduaren ehuneko 92k har lezakete aniztasun gehiago.

Hizkuntza eredu	Ikastetxe kop.	Indize negatiboa dutenak (%)	Indize positiboa dutenak (%)
Gaztelania	121	57	43
Euskara	62	8	92

*Iturria: Onartzeari buruzko ebazpenaren eranskineko taulak, 2021eko maiatzaren 13ko NAO.*


Ikasleak onartzeko prozesua behar bezala aplikatu dadin eta birbanaketari buruzko erabakiak koherenteak izan daitezen arduratzen diren organoak tokiko eskolatzeko batzordeak dira –batzorde bat eragin eremu bakoitzeko–, eta Hezkuntza Departamentua, berriz, Iruñerriko eragin eremurako.

*2021-2022 ikasturterako epea kanpoko matrikulan berresleitu diren ikasleen kopurua*





Epez kanpoko matrikulan berresleitu diren ikasleen azterketa egin dugu. Tokiko eskolatze batzordeek eta Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak egin dute berresleipen hori, 2021eko urritik 2022ko apirilera bitartean, indizea 2021-2022 ikasturterako aplikatu baita lehenengoz. Hona azterketaren emaitza: familiak eskatutako ikastetxea ez beste batera berresleitu dira 646 ikasle, guztira.



Tokiko batzordeek berresleipen prozesuan erabilitako irizpideak aldatu egin dira eta ez dira beti homogeenak izan.

**Laburbilduz**, eskolatze indizearen diseinuak banaketa orekatua egiten laguntzen du. Tresna baliagarria da, baina ezarpen fasean dago eta ezin dugu aztertu eskola matrikularen bilakaera. Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu indize-zenbakia erroldatik ateratako datuekin kalkulatu dela. Hortaz, garrantzitsua da ikastetxeek irizpide homogeenak erabiltzea errolda egiteko eta jarraibide argiak egotea, tokiko eskolatze batzordeen berresleipena homogeneizatzen dutenak.

## VI.2. HLBPlen berariazko hezkuntza premietarako hezkuntza erantzuna

Hezkuntza Departamentuak martxan jarri duen hezkuntza erantzunak zerkusia du ikastetxearen antolaketa alderdiekin, hala nola ikasleen multzokatze malgua, ikastetxearen giza baliabideak eta materialak edo curriculumari dagozkion hezkuntza neurriak.

Ikastetxeek, beren autonomia baliatuz, eta araudi indarduna kontuan izanda, nahi dituzten hezkuntza neurriak ezarri ahal dituzte. Funtsean, eskola komunitateak antolatzen ditu esku hartzeko esparruak, ikastetxean, eta irakasleak berak, ikasgelan.







Aniztasunari erantzuteko neurri hauek dira, besteak beste, curriculumari dagozkionak:

a) Sarrerako egokitzapenak, curriculumaren garapena erraztuko duten baliabide materialak edo komunikazio baliabideak eskaintzeko (egokitzapenak ebaluazio prozesuan, edota lupak, braillezko testuak eta abarreko baliabide materialak).

b) Egokitzapen esanguratsuak, ziklo bateko edo bi ikasmilako atzerapena baino handiagoa duten ikasleentzat, arlo edo ikasgai gehienei eragiten dietenak (ikasgelako laguntza eta errefortzua jartzen dira eskola ordutegiaren zati handi batean).

c) Hezkuntza errefortzua, ikasleak, matrikulatuta dagoen ikasmilako curriculum arrunta egiten badu ere, bestelako hezkuntza arreta behar duenean ohiko hezkuntza jardueraren osagarri; esaterako, taldekatze desberdinak, bikoizketak, talde malguak edo zenbait arlo eta irakasgai ikasteko errefortzua.

d) Curriculuma aberastea gaitasun handiko ikasleentzat: osatzeko, sakontzeko eta ikertzeko jarduerak zenbait arlo edo irakasgaitan.

e) Hezkuntza sistemako ikasmilen edo etapen iraupena malgutzea. Malgutze hori izan daiteke ikaslea oinarriko hezkuntzan urtebete lehenago hastea edo adinez dagokion ikasmilan baino gorago hastea.

## **2. helburua.** Egokitzen al zaie hezkuntza erantzuna HLBPIen berariazko premiei?

Hezkuntza erantzuna aztertu dugu HLBPIen kategoria bakoitzean. Azpiburu bakoitzeko auditoretza irizpideak ebaluatzeko, honako hauek aztertu ditugu: Educa Gidan ezarritako irizpideak, erroldako datuen ustiapena, eta MECen unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika, argitaratutako azken ikasturtekoa (2020-2021). Azken horri esker konparazioa egin ahal izan dugu gainerako autonomia erkidegoekin.

### *VI.2.1. Premia bereziak dituzten ikasleak*

Ikasle horien detekzioan ez dago arazorik, zeren eta, oro har, txosten medikoa eskatzen baita ikaslea erroldan sartzeko.

### **2.1. HPBak dituzten ikasleentzako hezkuntza arretaren antolaketak eskola inklusioa errazten al du?**

Orientazio gidak xehetasun handiagorik garatzen du 93/2008 Foru Agindua. Gida horretan azaltzen dira HPBak dituzten ikasleentzako eskolatzeko modalitateak, antolaketa neurriak eta eskolatzeko prozedura.

HPBak dituzten ikasleentzako hezkuntza arretaren antolaketa, ikastetxe arruntetan, aplikatutako eskolatzeko modalitatearen arabera aldatzen da.





a) Eskolatze arruntaren modalitatea.

Autonomia pertsonala eta moldatze-portaera badituzten ikasleentzako modalitatea da.

Hezkuntza premiak ikastetxeetako ohiko baliabideekin ase daitezke, doikuntza pedagogikoak eginda (eskola orientazioko langileak, pedagogia terapeutikoko irakasleak, entzumen eta mintzameneko irakasleak eta, hala behar denean, zaintzaileak, fisioterapeutak eta HHBBZren kanpo-laguntzak.

Bestalde, ikaslea talde arrunt batean eta ordutegi osoarekin eskolatu daiteke, edo talde arrunt batean eta laguntzekin, edo hezkuntza bereziko unitate batean. Hezkuntza bereziko unitateetan bi motatakoak bereizten ditugu, hezkuntza etaparen arabera:

- Trantsizioko / Garapenaren nahasmendu orokorreko unitateak (aurrerantzean, TU), Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetarako. Garapenaren nahasmendu orokorra edo/eta komunikazioaren nahasmendu larria duten HPB ikasleentzat eta adimen atzerapen moderatua dutenentzat dira.

- Curriculum bereziko unitatea (aurrerantzean, CBU), Bigarren Hezkuntzako etaparako. Adimen desgaitasun arinarekin edo moderatuarekin lotutako hezkuntza premiak izan eta Lehen Hezkuntzako etapan ikastetxe arruntetan ibili diren ikasleentzat dira. Bigarren Hezkuntzako etapa CBU batean amaitzen duten ikasleek Lanbide Heziketa Bereziko zikloetan ikasten jarraitu ahalko dute.

Hezkuntza bereziko unitateetan ikasleek arreta trinkoa jaso dezakete, eta erreferentziazko ikasgeletan integratu daitezke; hau da, ikastetxeko jarduera orokorretan parte hartu, eta eduki praktikoa eta ludikoa zenbait irakasgai ikasgela arruntetan ikasi, gizarte inklusioaren arloko helburuak bete daitezten.

b) Eskolatze bereziaren modalitatea.

Modalitate hau gauzatuko da soilik ikasleen hezkuntza premiei erantzun ezin zaienean aniztasunarekiko arretarako ohiko neurrien esparruan. Banakako arreta etengabea eta jarduketa bereziak behar dira, ikasleari adinez dagokion curriculum ofizialaren muturreko egokitzapen esanguratsuak barne direla. Ikastetxe arruntetako ikasgela alternatiboetan gauza daiteke (hemendik aurrera, IA), edo ikastetxe berezietan.

IA horietan “Hezkuntza Bereziko ikastetxea” da eskolatze proposamena, baina ondorio administratiboetarako ikaslea ikastetxe arruntetan matrikulaturik dago.

Hona hemen HPB ikasleen bilakaera haien ardatz diagnostikoaren arabera:

Azpikategoria	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021
Entzuteko desgaitasuna	150	157	162	165
Ikusteko desgaitasuna	70	61	69	66






Mugitzeko desgaitasuna	339	299	283	270
Adimen desgaitasuna	1.204	1.169	1.139	1.174
Garapenaren atzerapen orokorra (HH)	280	310	356	399
Autismoaren espektroko nahasmendua	381	408	436	481
Portaeraren nahasmendu larria	139	52	54	58
<b>HPB ikasleak, guztira</b>	<b>2.563</b>	<b>2.456</b>	<b>2.499</b>	<b>2.613</b>

HPB ikasleak HLBPI errolda osoaren ehuneko 9,5 inguru dira, eta matrikula osoaren ehuneko 2,8. 2020-2021 ikasturtean, guztira 2.613 ikasle izan dute desgaitasun motaren baten diagnostikoa.

#### *Ikastetxe berezian eskolatuen ehunekoa*

2020-2021 ikasturtean HPB ikasleen ehuneko zortzi egon dira eskolatuta ikastetxe berezi batean. Ehuneko horrek egonkor eutsi dio azken lau ikasturteetan, eta honako hau da ikasle horien banaketa, ardatz diagnostikoaren arabera:



Hezkuntza bereziko berariazko ikastetxeetako ikasleak “hezkuntza bereziko ikastetxea” eskolatze modalitatean matrikulaturik daude. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan desgaitasun larria duten ikasleentzako ikastetxeak dira. Gaur egun lau daude: Iruñeko Andrés Muñoz Garde eta Tuterako Torre Monreal ikastetxe publikoak, eta Iruñeko El Molino eta Iberoko Isterria ikastetxe itunduak.

HBBietako diagnostiko nagusiak adimen desgaitasuna eta autismoaren espektroko nahasmenduak dira. Mugitzeko desgaitasuna duten ikasleek, gehienetan, adimen desgaitasun larria edo oso larria ere badute.

*Ikasgela arruntean eskolatutako HPB ikasleen ehunekoa, desgaitasun motaren arabera*

2020-2021 ikasturtea

Ikasgela arruntean (%)





	Ez	Bai
Zentzumen desgaitasuna <sup>4</sup>	2	98
Mugitzeko desgaitasuna	11	89
Autismoaren espektroko nahasmendua	26	74
Adimen desgaitasuna	39	61

Ikusteko edo entzuteko desgaitasuna duten HPB ikasleen ehuneko 98, 2020-2021 ikasturtean, ikasgela arruntean eskolatu dira, bai Lehen Hezkuntzan bai Bigarren Hezkuntzan.

Mugitzeko desgaitasuna duten ikasleek, berriz, ehuneko 90 inguruko integrazio portzentajea izan dute. Adimen desgaitasunari lotutako ardatz diagnostikoak dituzten ikasleek osatzen dute integratu gabekoen portzentajea.

Aurreko datuak kontuan hartuz, ondorioztatu ahal dugu ezen, adimen desgaitasuna eta autismoaren espektroko nahasmendua beren ezaugarri berezientatik albora utzita, arau orokor gisa HPB ikasleak ikasgela arruntean ari direla.

*Hezkuntza bereziko unitateen kopurua eta bilakaera:*

Ikastetxe arruntetan matrikulatutako HPB ikasleak ikasgela arruntetan edo hezkuntza bereziko unitateetan egon daitezke eskolatuta.


Hezkuntza bereziko unitateak ikasleko ratio txikiagoa duten taldeak dira, eta tutorea pedagogia terapeutikoko irakaslea dute; gainera, badituzte beste baliabide batzuk: laguntzeko irakasleak edo zaintzaileak edo entzumen eta mintzameneko espezialistak. Ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak arautzen ditu, eta izan daitezke trantsizio unitateak, curriculum bereziko unitateak nahiz ikasgela alternatiboak.

Honako hau da unitate horien bilakaera ikasturteka:

---

<sup>4</sup> Zentzumen desgaitasunak ikusteko desgaitasuna eta entzuteko desgaitasuna biltzen ditu.





2020-2021 ikasturtean 99 unitate daude guztira, eta joera goranzkoa da.

Aldi osoan 24 unitate berri ireki dira, horietatik 21 sare publikoan eta 3 itunpeko sarean. 2020-2021 ikasturtean unitateen ehuneko 75 daude ikastetxe publikoetan eta ehuneko 25 ikastetxe itunduetan.

Ikasturtea	Unit. publikoak-itundua (%)	Matrikula publikoa-itundua (%)
2020-2021	100	100
Publikoa	75	64
Itundua	25	36

Ikasle hauen sare publikoaren eta itunpeko sarearen arteko banaketak egonkor eutsi dio, eta ikasleria orokorraren banaketaren antzekoa da.

#### *Hezkuntza bereziko unitateen ikasle ratioa*

Ratioak direla-eta, 93/2008 Foru Aginduak ezartzen du TUetan eta IAetan gehienez bost ikasle izanen direla, eta ez du ratorik ezartzen CBUetarako. Orientazio Gidak, ordea, 3-5 ikasleko ratioa gomendatzen du TUetarako eta 3-7 ikaslekoa CBUetarako eta IAetarako.

Ratioen gaineko azterketa egiten badugu, unitateko ikasle kopurua hartu eta magnitude hori ikastetxearen titulartasunaren arabera baloratuta, egiaztatuko dugu, oro har, ez dela gairatzen taldeko gehieneko ikasle kopurua eta ratioak hobeak direla sare publikoan.

Ikasturtea	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021
TU/GNO ratioak sare publikoan	3,5	4,3	3,9	4,3
TU/GNO ratioak itunpeko sarean	4,2	4,6	4,6	4,4





CBU ratioak sare publikoan	5,7	6,2	5,1	4,6
CBU ratioak itunpeko sarean	7,1	8,6	7,7	6,6
IA ratioak sare publikoan	3,6	3,8	4,2	3,3
IA ratioak itunpeko sarean	2	2	2,5	4,7

- TU ikasgeletako ratioak azterturik, ondorioztatu dugu sare publikoan ratioak hobeak direla nabarmenki, baina gero eta txikiagoa dela bi hezkuntza sareen arteko aldea. Lau ikasturteetan zehar, guztira 13 ikastetxek gainditu dute ezarritako ratioa: 12 ikastetxek 6 ikasleko ratioa izan dute, eta batek 7 ikaslekoa.

- CBU ikasgeletako ratioak azterturik, ondorioztatu dugu badirela aldeak sare publikoaren eta itunpeko sarearen artean: lau ikasturteetan itunpeko sareko ratioak 2 ikasle gehiago izan ditu sare publikokoak baino. Aztertutako aldian zehar, 24 ikastetxe publiko nahiz itunduk gomendatutako ratioa gainditu dute 44 berariazko ikasgelatan. Ehuneko 41ek, 8 ikasleko ratioarekin, eta gainerakoek 10-15 ikasleko ratioarekin. Irakasle espezialisten orduen hornidura ratioaren igoeraren arabera handitu ahal da.

- Ikasgela alternatiboetako ratioak azterturik, egiaztatu dugu bi ikastetxek bakarrik gainditu dutela ezarritako ratioa. Biak euskarazko hizkuntza modalitatekoak dira, eta 6 ikasle izan dituzte. Nafarroan ez dago euskarazko hezkuntza bereziko berariazko ikastetxerik; aukera bakarra ikasgela alternatiboa da. Aztertutako aldian horien kopurua bikoiztu egin da, 3 ikasgela izatetik 6ra pasatuz.

#### *Pedagogia terapeutikoko irakasleen orduen kopurua ikasgelan eta ikasgelatik kanpo*

Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo ikasleko emandako ordu kopuruaz EDUCA kudeaketa programan erregistratutako informazioa mugatua da, txosten honen norainokoari buruzko atalean azaldu den bezala. Hori dela-eta, ikasgela barruan ordu bat bera ere erregistraturik ez daukaten ikastetxeen kopurua bilatu dugu.

Ikasturtea	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021
Ikasgelaren barruko ordurik gabeko ikastetxeen kop.	Ez dago esku-ragarri	114	75	53

2017-2018 ikasturtean ikastetxe batek ere ez du ordurik erregistratu, EDUCA kudeaketa programan ez zuelako aukerarik ematen. Hurrengo ikasturteetan nabarmen gutxitu dira ikasgelaren barruan ordurik ematen ez duten ikastetxeak.

Departamentua irakaskuntza partekatua sustatzen ari da esku-hartze gehienak ikasgelaren barruan egin daitezten. Hala, bi irakasle elkarlanean aritzen dira ikasgela batean, bata tutorearen rola hartuta eta bestea laguntza-irakasle gisa, ikasle guztiek parte hartu ahal dezaten ikaskuntza prozesu komunean.





**Laburbilduz**, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza arretaren antolaketak eskola inklusioa errazten du, eta, desgaitasun motari erreparatuta, integrazio portzentaje handienak portaeraren nahasmendu larriei, entzuteko desgaitasunari eta ikusteko desgaitasunari dagozkie. Ikasgela arruntean integratzen ez diren ikasleei ikastetxe arruntetako hezkuntza bereziko unitateetan ematen zaie arreta. Ikasgela horietan hezkuntza bereziko plazen kopuruak igoera adierazgarria izan du, eta, oro har, ez dira gainditzen gomentatutako ratioak. Ikastetxe arruntetan hezkuntza bereziko unitate gehiago jaritzeko egungo politikari eutsiz gero, garrantzitsua da ikasle horiek erreferentziako ikasgeletan integratuko direla bermatzea.

## VI.2.2. Gaitasun handiko ikasleak

### 2.2.1. Ongi detektatzen al dira gaitasun handiko ikasleak?

#### *Detektatutako ikasleen kopuruaren bilakaera*

Ikasturtea	AGH gisa erroldatuak, guztira	Matrikula, guztira	Gutzizko matrikularen gaineko ehuneko
2017-2018	434	89.404	0,49
2018-2019	548	90.577	0,61
2019-2020	608	91.237	0,67
2020-2021	825	90.484	0,91

Erroldatuen kopurua bikoiztu egin da azken lau ikasturteetan: 17-18 ikasturtean 434 eta 20-21 ikasturtean 825 izan dira. Gorakada hori, funtsean, 2016an ebaluazio gida eta 2021ean HHBBZk prestatutako detekzio protokoloa argitaratu izanari zor zaio.

Ardatz diagnostiko honetan identifikatutako ikasleak ez dira matrikulatu guztien ehuneko batera iristen.

Ikastetxearen titulartasunari begira, ardatz diagnostiko honetan erroldatuen ehuneko 57 ikastetxe itunduetan matrikulaturik daude. Portzentaje hori handiagoa da ikastetxe itunduetan matrikulatutako ikasleen proportzioa (ehuneko 36) baino.

Ikasturtea	AGH gisa erroldatuak, guztira	Matrikula, guztira	Gutzizko matrikularen gaineko ehuneko
2020-2021	825	90.484	0,91
Itundua	471	32.583	1,45
Publikoa	354	57.901	0,61





Generoari begiratuta, badago genero arrakala, identifikatutako mutilak neskak baino gehiago baitira.

ETAPA	2020-2021		2020-2021	
	Errolda	%	Matrikula	%
mutilak	508	61,58	46.432	51,31
neskak	317	38,42	44.052	48,69
Guztira, oro har	825	100,00	90.484	100,00

2020-2021 ikasturterako erroldatuen portzentajea ehuneko 61 da mutilen kasuan eta ehuneko 38 nesken kasuan. Matrikulatuen portzentajeak ehuneko 51 eta ehuneko 49 dira, hurrenez hurren. Beraz, erroldatutako mutilen ehuneko handiagoa da proportzioz.

*Gaitasun handien detekzioaren ehunekoak, beste autonomia erkidego bartzuen aldean:*

Kategoria honetan sailkatzen dira, MECek erabiltzen duen metodologiaren arabera, desgaitasunagatik, portaeraren nahasmendu larriagatik edo hizkuntzaren garapenaren nahasmenduagatik bigarren mailako beste ardatz diagnostikoren bat ez duten ikasleak.

Hona hemen ikasle hauen ehunekoa matrikulatutako guztien gainean:

Autonomia erkidegoak	AGH/Matrikula (%)
Nafarroa	0,88
Beste erkidegoetako batezbestekoa	0,57

**Laburbilduz**, hezkuntza orientazioko zerbitzuek AGHtzat baloratutako ikasleak ez dira matrikulatutako ikasle guztien ehuneko batera ere iristen, eta horrek esan nahi du, adituen arabera (Marland txostena, Javier Tourón), ikasle horien portzentaje handi bat identifikatu gabe gelditzen dela. Munduko biztanleen ehuneko 10 inguruk gaitasun handiak dituztela eta ehuneko bi gaindohatuak direla kalkulatu da. Kasu horiek 2020ra arte ez ziren behar bezala detektatzen, baina gaur egun Nafarroan baditugu gaitasun handien detekzio goiztiarrerako protokoloa eta esku hartzeko eredia, biak ere HHBBZk eginak, eta detekzioari buruzko datuek nabarmen egin dute hobera. Protokoloak eguneratu egiten du kontzeptua, baina erroldak bat etorri behar du protokoloarekin, eta, beraz, EDUCA Gida eguneratu beharra dago hura egokitzeko.

### **2.2.2. Hezkuntzako esku-hartzeak emaitza positiboak izan al ditu ikasle horientzat?**

*Ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean, 2020-2021 ikasturtean*


Gaitasun handikotzat identifikatutako ikasleentzako berariazko hezkuntza neurriak dira “curriculum aberastea”, ahalik gehien gara ditzaten gaitasun horiek, eta hezkuntza sistemako ikasmailen edo etapen iraupena “malgutzea”.







Hona hemen 2020-2021 ikasturtean erroldatutako ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean:



2020-2021 ikasturtean AGH gisa erroldatutako ikasleen ehuneko 29k, hau da, 240 ikaslek, ez dute inolako hezkuntza neurririk jaso.

Gehien aplikatzen den neurria curriculum aberastea da, 2018-2019 ikasturtean ehuneko 55 izatetik 2020-2021 ikasturtean ehuneko 69 izatera pasatu baita. Guztira 564 ikaslek jaso dute.

*Pedagogia terapeutikoko irakasle orduak esleitu zaizkien AGH ikasleen ehuneko*

Pedagogia terapeutikoko irakaslearekin esleitutako orduei dagokienez, AGH ikasle guztietatik ehuneko seik bakarrik (47 ikaslek) eduki dute esleituta PT orduren bat 2020-2021 ikasturtean.

*2020-2021 ikasturtean erroldan sartutako gaitasun handiko ikasleen emaitza akademikoak beren eskola ibilbidean zehar:*

2020-2021 ikasturtean erroldatutako gaitasun handiko ikasleek (guztira 825 ikaslek) beren eskola ibilbidean zehar lortutako emaitza akademikoak aztertu ditugu, Haur Hezkuntza albora utzita, etapa horretan ez baitago nota akademikorik. Emaitza horiek aztertu eta hau ondorioztatu dugu:

- Egun diagnostikaturik dauden ikasleetatik 28k bakarrik (ehuneko 3,5ek) izan zuten 7tik beherako batez besteko nota, diagnostikoa egin zitzaian unean.
- Diagnostikatutako ikasleek ez dute hezkuntza errendimendua hobetu; 38 ikaslek bakarrik izan dute ehuneko batetik gorako hobekuntza batez besteko notan.

	Batez besteko nota	Batez besteko nota > 8	Batez besteko nota < 8
Diagnostikoaren aurretik	8,53	588	153
Diagnostikoaren ondoren	8,40	387	130






**Laburbilduz**, AGH ikasleentzako hezkuntzako esku-hartze nagusia curricula aberastea da. Dena dela, azpimarratu behar da ehuneko 29k ez daukarela inolako hezkuntza neuririk. Hezkuntza neuririk gabekoen ehunekoa hain handia izatearen arrazoa detekzioaren gorakada eta esku hartzeko denbora falta izan daitezke. Aberaste eredura mugatu da hezkuntza erantzuna, eta bakanka erabili da malgutze neurri berezia. Neurri hori uztailaren 18ko 943/2003 Errege Dekretuan arautzen da, zeinaren bidez mailen eta etapen iraupena malgutzeko baldintzak ezartzen baitira. Detekzioa 7tik gorako batez besteko nota duten ikasleen artean egiten da, funtsean. Horrek esan nahi du eskola errendimendu baxua dutenak agian behar bezala detektatu gabe gelditzen direla.

### VI.2.3. BS/BP ikasleak

#### 2.3.1. Ongi detektatzen al dira hezkuntza sisteman berandu sartu diren edo/eta baldintza pertsonalak nahiz eskola historiarenak dituzten ikasleak?

*Ikasle horien ehunekoa matrikulatutako ikasle guztiekiko*

Kategoria hau da ugariena, matrikulatutako ikasle guztien ehuneko 19 bitzen baititu.



Kategoria hau arrazoen arabera banatzen da, eta bost dira arrazoiak. Kategoria hau bateragarria da gainerako kategoriekin (HPB, AGH eta IZB), eta ikasle bera arrazoi batean baino gehiagotan erroldatuta egon daiteke.

Beste kategoria batzuetan diagnostiko nagusia eta bigarren mailako ardatzak daude, baina kategoria honetan ez dago arrazoi nagusirik.





Ikastetxearen titulartasunari dagokionez, eroldaren banaketak egonkor iraun du aztertutako lau ikasturteetan. Hona 2020-2021 ikasturteko banaketa:

Ikasturtea	Erroldatuak, guztira	Erroldatuen gaineko ehuneko	Matrikula, guztira	Matrikularen gaineko ehuneko
2020-2021	18.146	100	90.484	100
Itundua	2.787	15	32.583	36
Publikoa	15.359	85	57.901	64

Ikasle hauen banaketa ez da homogenea, aitzitik portzentaje handiagoa dago ikastetxe publikoetan. 2020-2021 ikasturtean, ikastetxe itunduetan matrikulatu dira ikasle guztien ehuneko 36, baina BS/BP gisa erroldatutako ikasleen ehuneko 15 soilik.

"Gizarte eta hezkuntza desabantaila" arrazoiak da desoreka horren eragile nagusia. BS/BP arrazoi hori kentzen badugu, ehuneko 0,7ra jaisten da ikastetxe itunduetan eta ehuneko 3,2ra ikastetxe publikoetan.

*Hezkuntza desabantaila duten ikasleen ehuneko, HLBPI guztien aldean. Konparazioa beste autonomia erkidego batzuekin:*


Gizarte eta hezkuntza desabantaila duten ikasleak, MECen estatistikako irizpideen arabera, eskola atzerapen nabarmena duten ikasleak dira: beren curriculum-gaitasunaren eta eskolatuta dauden kurtsoren artean bi kurtsoko edo gehiagoko aldea dago. Horren arrazoiak izan daitezke gutxiengo etniko edo kultural batekoa izatea, faktore sozial, ekonomiko edo geografikoak, edota hezkuntza sisteman sartzeko zailtasunak, eskolatze irregularrari lotuak.

Kategoria honetan, aplikatutako metodologiaren arabera, beste arrazoi edo ardatz diagnostiko nagusirik ez duten ikasleak daude. Ministerioaren estatistikan Haur Hezkuntzako etapa ez da kontuan hartzen kategoria honi dagokionez, ez baitu uste etapa horretan egoera sozioekonomikoak eragiten duenik.

Hau da gizarte eta hezkuntza desabantaila duten ikasleen ehuneko autonomia erkidegoetan<sup>5</sup>, HLBPI guztien aldean:

<sup>5</sup> Andaluzian eta Euskal Autonomia Erkidegoan ez dituzte ikasleak kategoria honetan erroldatzen.





Nafarroa eta Valentziako Erkidegoa dira gizarte eta hezkuntza desabantaila duten ikasleen portzentajerik handieneko erkidegoak.


Nafarroako datua MECen irizpideekin homogeneizatu da.

**Laburbilduz**, ikasle hauek erroldan sartu behar lirateke beren egoeraren eragina eskola errendimenduan nabaritzen denean eta hezkuntza neurriak hartu beharra dagoenean. MECen metodologian kanpora uzten da Haur Hezkuntzako etapa, eta eskola atzerapen nabarmena eskatzen da. Nafarroan, aldiz, ez dago irizpide argi eta ikastetxe guztietarako homogeneorik.

### 2.3.2. Hezkuntzako esku-hartzeak emaitza positiboak izan al ditu ikasle horientzat?

*Ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean, 2020-2021 ikasturtean*

Hona hemen 2020-2021 ikasturtean erroldatutako ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean:





Hezkuntza neurri bakoitzak guztizkoan duen pisuak egonkor iraun du azken hiru ikasturteetan. Ikasleen 59k ez daukate esleiturik inolako hezkuntza neurririk. Hezkuntza-errefortzua da gehien aplikatzen den neurria, errekupeazio planarekin batera.

*Errepikatzaileen tasa, matrikulatu guztien aldean*

Honako hau da errepikatze tasa, hots, hurrengo kurtsora igarotzen ez diren ikasleen portzentajea, matrikulatutako ikasle guztien aldean:

	Errepikatzaileak / Guztizko matrikula (%)	Errepikatzaileak / BS/BP gisa erroldatuak (%)
2017-2018	2,85	6,03
2018-2019	3,11	7,18
2019-2020	1,61 <sup>6</sup>	4,21 <sup>6</sup>
2020-2021	2,90	6,53

2020-2021 ikasturtean, matrikulatutako ikasleen ehuneko hiruk errepikatu dute kurtsoa, baina BS/BP gisa erroldatutako ikasle errepikatzaileen portzentajea nabarmen handiagoa da, ehuneko 6,5 hain zuzen.

*Derrigorrezko hezkuntza sisteman irauten dutenak, matrikulatu guztien aldean*

Erroldaren 2022ko martxoko datuak aztertzen baditugu, 2017-2018 ikasturtean DBHko hezkuntza etapan matrikulatutako eta BS/BP gisa erroldatutako ikasleei dagokienez, hau da emaitza:

DBHko 1.tik 4.era bitarteko ikasleak 2017-2018 ikasturtean	Ikasleak 2017-2018	Egoera 2022ko martxoan		Ez dauden ikasleen ehunekoa
		Tituludunak edo matrikulatuak	Ez daude	
BS/BP gisa erroldatuak	3.161	2.521	640	20
Guztira	26.034	24.484	1.550	6

2017-2018 ikasturtean DBHko hezkuntza etapan matrikulaturik eta tipologia honetan erroldaturik zeuden ikasleetatik ehuneko 20k 2022ko martxoan ez dute titulurik lortu eta ez daude Nafarroako hezkuntza sisteman. Portzentajea ehuneko seira jaisten da DBHan matrikulatutako guztien kopuruarekin erlazionatuta aztertzen badugu. Kontsulta honek badu kontuan hartzeko muga bat: baliteke autonomia erkidego batetik bestera aldatu diren ikasleak sartuta egotea.

<sup>6</sup> 2019-2020 ikasturtean portzentajeak behera egin du ikasle guztientzat, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz onetsitako neurrien eraginez.






**Laburbilduz**, ez dira helburuak neurtzen ekintzen emaitzak kuantifikatzea ahalbidetuko luketen adierazleen bidez. Beraz, ezin dugu ebaluatu ea hezkuntzako esku-hartzeak emaitza positiborik lortu ote duen ikasle hauentzat. Nolanahi ere, oso esanguratsua da inolako hezkuntza neurririk esleiturik ez daukaten BS/BP ikasleen portzentajea (ehuneko 59). Errepikatze tasa matrikula osoari dagokionaren bikoitza da, eta ikasle hauek gutxiago irauten dute hezkuntza sisteman beste kategoria batzuetakoek eta matrikulatutako guztiek baino. Hezkuntza sisteman irauteak lehentasunezko helburu izan behar luke, ikasleen gizarte inklusioaren bermea delako.

#### VI.2.4. Ikasteko berariazko zailtasunak dituzten ikasleak

##### 2.4.1. Ongi detektatzen al dira IBZ ikasleak)?

*Ikasle horien ehunekoa matrikulatutako ikasle guztiekiko*



Kategoria honek matrikula osoaren ehuneko hamar inguru hartzen du.


Erroldaren banaketa homogeneoa da ikastetxearen titulartasunari erreparatzen badiogu:

Ikasturtea	IBZ gisa erroldatuak, guztira	Matrikula, guztira	Guztizko matrikularen gaineko ehunekoa
2020-2021	9.734	90.484	10,76
Itundua	3.475	32.583	10,67
Publikoa	6.259	57.901	10,81



*Bilakaera, ardatz diagnostikoaren arabera:*

Ardatz diagnostikoei begira, bilakaera honako hau izan da:



Erroldatutako ikasleen kopurua ehuneko 37 handiagoa izan da 2020-2021 ikasturtean 2017-2018 ikasturtean baino. Gehikuntza are handiagoa da ikas-kuntzaren nahasmenduan (ehuneko 97) eta portaera erregulatzeko zailtasune-tan; azken horiek 2018-2019 ikasturtean hasi ziren erroldatzen.

*Esku hartuta konpondu ez diren nahasmenduen bilakaera*

Hizkuntzaren adierazpen-nahasmenduak eta irakurketaren, idazketaren eta kalkuluaren nahasmenduak, EDUCA Gidaren arabera, ez dira esku hartuta konpontzen, hau da, ikaslearen eskolatzealdi osoan irauten dute. Nahasmendu horiengatik 2017-2018 ikasturtean erroldatutako ikasleek hurrengo hiru ikas-turteetan izandako bilakaerari erreparatuta ikusten dugu hirugarren urtean baja ematen zaiela edo diagnostikoa aldatzen zaiela, eta ehuneko bost-hamar bi-tarte baino ez direla erroldan irauten dutenak.

Esku hartuta ere konpontzen ez diren na-hasmenduak	Erroldan diraute	Urtebete	2 urte	3 urte
Idazketaren nahasmendua	63	20	12	5
Irakurketaren nahasmendua	68	18	7	6
Kalkuluaren nahasmendua	63	20	12	5
Hizkuntzaren adierazpen-nahasmendua	34	56	0	10

ADN-H nahasmendua haurtzaroan azaltzen da, eta sintomek helduarora arte iraun dezakete. Gidan ez da nahasmendu konpongaitz gisa agertzen, baina 65/2012 Foru Aginduak iraunkortzat definitzen du. 2017-2018 ikasturteko errolda azterturik, ikusi dugu ehuneko 15 erroldatik irten direla derrigorrezko hezkuntza amaitu baino lehen.






Ikus daitekeenez, esku hartuta ere konpontzen ez diren nahasmenduei baja ematen zaie derrigorrezko hezkuntza amaitu baino lehen, eta hori ez da zentzuzkoa, esku hartuta ere konpondu ez diren zailtasunak izanik.

### 2.4.2. Hezkuntzako esku-hartzeak emaitza positiboak izan al ditu ikasle horientzat?

*Ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean*

Hona hemen 2020-2021 ikasturtean erroldatutako ikasleen ehunekoa hezkuntza neurri bakoitzean:



2020-2021 ikasturtean, erroldatutako ikasleen ehuneko 19k, hau da, 1.879 ikaslek, ez dute inolako hezkuntza neurriarik jaso.

Gehien aplikatzen den neurria hezkuntza-errefortzua da: 2020-2021 ikasturtean ehuneko 35. Guztira, 3.418 ikaslek jaso dute.

*Errepikatzaileen tasa, matrikulatu guztien aldean*

Multzo diagnostiko honetako ikasleen errepikatze tasak erakusten digu nolako ibilbidea egin duten ikasle hauek eskolatzealdian zehar. Matrikulatu guztien arteko errepikatze tasa baino handiagoa da multzo honetakoa.

Ikasturtea	Errepikatzaileak / Matrikula (%)	Errepikatzaileak / IBZ errolda (%)
2017-2018	2,8	6,1
2018-2019	3,1	6,2
2019-2020	1,6	3,1
2020-2021	2,9	5,8







2020-2021 ikasturtean, matrikulatutako ikasleen ehuneko hiruk errepikatu dute kurtsoa, baina IBZ erroldako ikasle errepikatzaileen portzentajea nabarmen handiagoa da, ehuneko 5,8 hain zuzen.

**Laburbilduz**, kontuan izanda helburuak ez direla ezartzen neurtu ahal izateko moduan eta ez zaiela jarraipenik egiten, ezin dugu argitu esku-hartzea emaitza positiborik izaten ari ote den ala ez, baina ikusi dugu IBZ ikasleentzako hezkuntzako esku-hartzea, funtsean, sarrerako curriculum egokitzapenaren eta hezkuntza-errefortzuaren bidez gauzatzen dela. Errepikatzaileen tasa, berriaz, matrikula osoarena halako bi da.

### VI.3. Ikastetxeak baliabide profesionalaz hornitzea

#### **3. helburua.** Hezkuntza administrazioak bermatzen al du ikastetxeek behar diren baliabide profesionalak izatea HLBPIei hezkuntza laguntza eman ahal izateko?

Helburu honetako irizpideak ebaluatzeko, ikastetxeei profesional espezialisten orduak esleitzen dizkien programa aztertzeaz gain, ikastetxe itunduen finantzaketa aztertu dugu, itun arruntaren nahiz itun bereziaren bidezkoa, bai eta esleipen ekonomikorako urteroko deialdi publikoa ere, ikastetxe horiek HLBPIentzako profesionalaz hornitzea ahalbidetzen duena.

Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuaren ardura da aniztasunari erantzuteko baliabide profesionalak esleitzea ikastetxeei, DBHko 2. mailara arte.

Ikastetxeek espezialitateetako profesional hauek dituzte HLBPI ikasleei arreta emateko:

- Pedagogia terapeutikoko (aurrerantzean PT) irakasleak. Batez ere HLBP ikasleei hezkuntza erantzuna eskaintzeaz arduratzen dira
- Entzumen eta hizkuntzako (aurrerantzean EH) irakasleak. Logopedian espezializatuta daude.
- Orientatzaileak eta psikopedagogoak, ikasleen garapen psikosoziala sustatzen dutenak.
- Fisioterapeutak.
- Gutxiengo etniko eta kulturei laguntzeko irakasleak.
- Hezkuntza laguntzako espezialistak (aurrerantzean HLE). Behar denean, zaintza pertsonalaz arduratzen dira.

*Ikastetxeei irakasle espezialistak esleitzean kontuan hartu beharreko alderdiak:*





a) Giza baliabideak ikastetxeari esleitzen zaizkio, ez ikasleari. Beraz, ikastetxeari dagokio baliabide horiek antolatu eta kudeatzea.

b) Irakasle espezialisten hornidura erroldan oinarrituta zehazten da. Beraz, EDUCA kudeaketa programan jasorik ez dauden ikasleak ez dira kontuan hartzen baliabideen hornidura kalkulatzeko garaian.

c) Ikastetxeei orduak esleitzean, asteko irakastorduak esleitzen dira, hau da, HLBP ikasleei zuzenean arreta emateko orduak.

Inklusio Zerbitzuak ikastetxeetan aniztasunari erantzuteko baliabide profesionalak esleitzeko prozesua diseinatu du. 2019-2020 ikasturtean hobekuntza prozesu bat hasi da baliabide horien hornidurarako. Hala, programa informatiko bat ezarri da, ikastetxeei espezialisten orduak esleitzen dizkiena aurrez ezarritako irizpideen arabera. Helburua da, azken batean, modu ahalik eta orkatuenean banatzea irakasle espezialisten urteko orduak ikastetxeen artean. Programa horren aurretik, ez daukagu daturik esleipena nola egin izan den jakiteko.

### 3.1. Ikastetxeek ba al dute behar adina baliabide profesional?

#### *Espezialisten gastuaren bilakaera HLBPIei dagokienez*

HLBPIei arreta emateko espezialisten gastua, azken bi ikasturteetarako, honako hauek kontuan harturik lortu dugu:

- Ikastetxe publikoetako espezialisten gastuaren zenbatespena egiteko oinarritzat hartu ditugu ikastetxeei lanbide profil bakoitzeko esleitutako orduak eta orduko soldataren batez besteko kostua, Departamentuak emana. Kostu zenbatetsi horretan ez daude sartuta antzinatasuneko osagarria eta gradukoa.

- Berariazko ikasgeletan ikasleei arreta ematen dieten langileen gastuak barnean hartzen ditu halaber Lanbide Heziketa Bereziko (LHB) aniztasunari erantzuteko unitateak eta helduaroko bizimodurako trantsiziokoak (HBT). Horiek ez dira txosten honen eremukoak, baina ezin izan ditugu besteetatik bereizi.

- Ikastetxe itunduetan espezialisten gastua deialdi publikoaren bitartez finantzatzen da eta berariazko aurrekontu-partidei egozten zaie, orientatzaileen gastua izan ezik, hori ikastetxe itunduetako irakasleen gastuari egozten baitzaio. Hortaz, itunpeko sareko orientatzaileen gastua ez dago sartuta guztizko gastuan.

Aurrekoak kontuan izanda, guztizko kostu hau zenbatetsi da:

HLBPIei arreta emateko langileen kostu zenbatetsia	2019-2020	2020-2021	Aldea (%)
NHBBZ egitura	1.519.697	1.550.091	2
Hezkuntza Bereziko ikastetxeak	5.064.033	5.492.246	8
Ikastetxe arruntak	42.341.349	44.517.161	5





Berariazko ikasgelak (IA-TU-CBU-HBT-LHB)	9.077.721	9.479.251	4
Ikastetxe arruntetako gainerako hornidura	33.263.628	35.037.910	5
Ikastetxeak, guztira	47.405.381	50.009.407	5
Guztizko kostu zenbatetsia	48.925.078	51.559.497	5
HLBPI	25.743	27.471	7

Hona hemen ikastetxeen guztizko kostu zenbatetsia sarearen arabera xehakaturata:

HLBPIei arreta emateko langileen kostu zenbatetsia	Sare publikoa			Itunpeko sarea		
	2019-2020	2020-2021	Aldea (%)	2019-2020	2020-2021	Aldea (%)
Hezkuntza Bereziko ikastetxeak	3.387.802	3.697.640	9,15	1.676.231	1.794.606	7,06
Ikastetxe arruntak	33.938.227	35.769.305	5,40	8.403.122	8.747.856	4,10
Egiturak (IA-TU-CBU-HBT-LHB)	4.789.645	4.951.143	3,37	4.288.076	4.528.108	5,60
Ikastetxe arruntetako gainerako hornidura	29.148.582	30.818.163	5,73	4.115.046	4.219.747	2,54
<b>Ikastetxeak, guztira</b>	<b>37.326.029</b>	<b>39.466.945</b>	<b>5,74</b>	<b>10.079.353</b>	<b>10.542.462</b>	<b>4,59</b>
HLBPI	19.537	20.697	5,94	6.206	6.774	9,15

Itunpeko sarean, 2021-2022 ikasturtean, gastua gauzatzeari buruzko datuak ez daude osorik eta ez ditugu sartu konparazioan.

**Laburbilduz**, ezin dugu ondorioztatu ikastetxeek ba ote duten behar adina baliabide profesional, Hezkuntza Departamentuak ez duelako ezarri profesionalen ratorik ikasle bakoitzeko eta hezkuntza neurri bakoitzeko. Lanbide profil guztietako ordu hornidurak aurreko ikasturtearen arabera zehazten direla ikusi dugu. Doiketa orokorrak egiten zaizkie, hurrengo ikasturterako aurreikusten diren aldaketen arabera. HLBPIekin lotutako gastuaren bilakaera aztertutako dugu, eta, kostua ehuneko bost handitu bada ere, ez da aski izan HLBPIen kopuruaren ehuneko zazpiko igoera konpentsatzeko.

### 3.2. HLBPIentzako baliabide profesionalak modu ekitatibo eta proportzionalen banatzen al dira ikastetxeen artean?

Ikastetxeei giza baliabideak banatzeko irizpideak objektiboak dira eta oinarritzat hartzen dituzte matrikulatutako HLBPIak eta ikasle horiei lotutako hezkuntza neurriak. Egiaztatu dugu ikastetxe publikoetan eta itunduetan berdinak direla baliabideen beharra ebaluatzeko irizpideak.

*Ikastetxe itunduetan HLBPIei arreta emateko baliabide profesionalen finantzaketa*

Ikastetxe itunduen eta NFKAren arteko harremanak arautzen dituen tresna ituna da, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onesten duen 416/1992 Foru Dekretuan arautzen dena. Itunen ondoriozko gastuak modulua du oinarri, hau da, hezkuntza itunduko unitate bakoitzari zenbat eman behar





zaion hezkuntzako etaparen arabera zehazten duen kontzeptu ekonomikoa. Ikastetxe itunduek finantzaketa iturri hauek dituzte irakasle espezialistak kontratatzeko:

a) Itun berezia

Hezkuntza bereziko hezkuntza itunek hezkuntza bereziko unitateetarako baliabide profesionalen hornidura arautzen dute ikastetxe itundu arruntetan. Finantzaketa zehazteko oinarria berariazko moduluan ezarritako zenbatekoa da, eta hori urtero eguneratzen da aurrekontuei buruzko foru legearen arabera.

b) Itun arrunta

Itun arruntek orientazioko lanbide profiletarako baliabide profesionalen hornidura arautzen dute ikastetxe itundu arruntetan.

c) Urteroko deialdi publikoa

PTko eta EHko irakasleen, gutxiengoei laguntzeko irakasleen eta HLEen orduen hornidura, ikastetxe itundu arruntetan, urteroko deialdi publikoaren bidez gauzatzen da. Inklusio Zerbitzuak kudeatzen du deialdia, eta hura finantzatzeko urte anitzeko gastua Gobernuaren erabaki bidez onesten da.

*Arreta orduen kopurua lanbide profil bakoitzeko ikastetxe publikoetan, HLBPIei dagokienez*

Irizpide hau ebaluatzeko, programak 2021-2022 ikasturterako egindako ordu esleipena aztertu dugu. Egiaztatu dugu programak ongi esleitzen dituela orduak, ezarritako irizpideei jarraituz, eta darabilen informazioa bat datorrela erroldako datu basearekin.

Ikastetxe bakoitzari irakasle espezialisten zenbat ordu esleituko zaizkion kalkulatzeko, faktore hauek erabiltzen dira, funtsean: kategoriaren batean erroldatutako HLBPI ikasleen guztizko kopurua, EDUCA erroldan aniztasunari erantzuteko jasotako hezkuntza neurriak, eta ikastetxe bakoitzeko batez besteko ratioa. Ardatz diagnostikoaren eta hezkuntza neurrien konbinazioa haztatu egiten da, hau da, azkenean ikastetxe bakoitzarentzako hornidura zehaztean kontuan hartuko dira faktore guztiak. Alegia, hezkuntza neurririk gabe erroldatuta dauden ikasleek hornidura txikiagoa izanen dute curriculumaren egokitzapen adierazgarria dutenek baino.

Programa ezarri zenetik, honako hau izan da ikastetxe publiko arruntak baliabide profesionalen hornitzeko ordu kopurua, kanpoan utzita orientatzaileen orduak eta HLE orduak (beste irizpide batean aztertuak):

Lanbide profila	2019-2020	2020-2021	2021-2022	19-20 / 21-22 (%)
PT	8.129	9.001	9.270	14
EH	3.267	3.329	3.427	5
Gutxiengoei laguntzea	2.944	2.679	2.594	-12





Orduak, guztira	14.340	15.009	15.291	7
HLBPI, ikastetxe publikoak	19.537	20.697	20.395	4
Orduak/HLBPI ratioak	0,73	0,73	0,75	

Ikastetxe publikoetan erroldatutako ikasleen kopurua 2021-2022 ikasturtean ehuneko lau handiagoa izan da 2019-2020 ikasturtean baino, eta baliabideak ehuneko zazpi handitu dira bitarte berean. PT orduen gehikuntza nabarmentzen da, bai eta gutxiengoei laguntzeko irakasleen orduen beheranzko joera ere, azken bi ikasturteetan.

Erroldatutako ikasle bakoitzeko esleitutako irakasle espezialisten orduen ratioa epealdian zehar 0,73 izan da. Ratio horren balioa ez da erabatekoa, ez duelako kontuan hartzen ikaslearen hezkuntza neurrien pisua.

*Lanbide profil bakoitzeko arreta orduen kopurua ikastetxe itunduetan, HLBPIei dagokienez*

Aztertutako epealdian honako zenbateko hauek onetsi dira deialdietarako, urtez urte:

Gobernuaren erabaki bidez onetsitako zenbatekoa	2019-2020	2020-2021	2021-2022	Aldea (%) 21-22 / 20-21	Aldea (%) 21-22 / 19-20
		4.458.544	4.571.000	4.883.454	6,84

Deialdi bidez onetsitako urteko zenbatekoa lanbide profil bakoitzeko ordu kopuru bihurtzen da ikasleei zuzeneko arreta emateko asteko irakastorduen profil-kostuan oinarrituta eta ituneko modulu ekonomikoaren gainean kalkulatuta. Ikastetxeei programaren bitartez esleitzen zaizkie orduak, ikastetxe publikoei bezala.

Lanbide profila	2019-2020	2020-2021	2021-2022	19-20 / 21-22 (%)
PT	1.261	1.287	1.226	-3
EH	541	612	585	8
Gutxiengoei laguntzea	248	261	257	4
<i>Orduak, guztira</i>	<i>2.050</i>	<i>2.160</i>	<i>2.068</i>	<i>1</i>
<i>HLBPI, ikastetxe itunduak</i>	<i>6.206</i>	<i>6.774</i>	<i>6.546</i>	<i>5</i>
Orduak/HLBPI ratioa	0,33	0,32	0,32	

Erroldatutako ikasle bakoitzeko ordu ratioa 0,32 da, batez beste, eta, gorago aipatu bezala, ohartarazi behar da ez duela kontuan hartzen neurrien pisua. Ratio hori ikastetxe publikoetarako kalkulaturakoa baino txikiagoa da, orduen esleipena deialdiko zenbatekoaren arabera mugatzen delako.

*Hezkuntza bereziko unitateei esleitutako PT orduen kopurua eskolatze sarearen arabera*





Ikastetxe publiko arruntetako ikasgela horietako bakoitzak PT hornidura hau jasotzen du:

Hezkuntza Departamentuak, hornidura arrunt eta orokor gisa, astean 35 irakastorduko hornidura ematen du TU eta IAetarako.

Bigarren Hezkuntzako CBUetarako hornidura arrunta, hau da, asteko irakastorduen kopurua, ikasgelan dabilzan ikasleen kopuruaren arabera zehazten da:

PT HORNIDURA CBU-ETARAKO					
CBU ikasleen kop.	1	2 eta 3	4-7 bitarte	8 eta 9	>9
Asteko irakastorduak	10	20	36	42	60

Ikastetxe itundu arruntetako ikasgela horietako bakoitzari eman beharreko PT hornidura zehazteko, hezkuntza bereziko unitateetarako itun bereziko modulu ekonomikoa erabiltzen da, hezkuntzako etapa edozein dela. Hornidura hori astean PTko 25 irakastordukoa da, eta ordu horiek ikasleen eskola orduak berak dira.

Hortaz, ikastetxe itunduetako hezkuntza bereziko unitateetan aniztasunari erantzuteko langile hornidura nabarmen txikiagoa da ikastetxe publikoetako pareko ikasgelena baino.

*HLE orduen kopurua ikasle bakoitzeko, eskolatzeko sarearen arabera*

Ikastetxeek urtero HLE langileen arreta orduak eskatzen dizkiote Hezkuntza Departamentuari, eta bai NHBBZk bai orientabide zerbitzuak esku hartzen dute horrelako langileen beharraren balorazioan.

Inklusio Zerbitzuak erabakitzen du HLE langileen orduen esleipena ikastetxe itunduentzat. Zehazten du deialdia finantzatzeko gastutik zenbat bideratuko den langile horien hornidurara. NHBBZk erabakitzen du nola hainbanatu ordu horiek ikastetxeen artean.

Ikastetxe arruntei esleitutako zaintzaile orduen kopurua, aztertutako aldiaren honako hau izan da, hezkuntza bereziko unitateak kanpoan utzita:

Ikasturtea	Ikastetxe publikoak			Ikastetxe itunduak		
	HLE orduak	HLBPI kopurua *	Orduak/HLBPI ratioak	HLE orduak	HLBPI kopurua *	Orduak/HLBPI ratioak
2019-2020	5.522	271	20,37	1.500	74	20,27
2020-2021	5.338	268	19,92	1.612	120	13,43
2021-2022	5.787	379	15,27	1.522	132	11,53

\*Zaintzailea duten HLBPIen kopurua.





Konparaziotik kanpo utzi ditugu hezkuntza bereziko berariazko ikastetxeak, horiek itun bereziaren bidez finantzatzen direlako.

HLE langileen batez besteko irakastordu kopuruak, astean, ikasle bakoitzeko, nabarmen egin du behera aztertutako aldian, eta jaitsieraren portzenta-jea handiagoa izan da ikastetxe itunduetan.

*Sare publikoaren eta sare itunduaren arteko konparazioa: ikastetxe arruntetako ikasgela arruntetan programa bakoitzean esleitutako ordu kopurua, lanbide profilaren arabera*

Sare publikoaren eta itunpeko sarearen ordu esleipenen arteko konparazioa egin ahal izan dugu soilik PT eta EH irakasle espezialisten eta gutxiengoei laguntzeko irakasleen hornidurari dagokionez. Ez ditugu konparazioan sartu orientatzaileen eta HLEen profilak, arrazoi hauek direla-eta:

a) Ikastetxe publikoetarako banaketa-programak barruan hartzen ditu orientazio orduak. Ikastetxe itunduen sarean, langile horiek itun arruntaren bidez finantzatzen dira. Sare horretan esleitutako orientazio orduen kopurua kalkulatu daiteke, baina ez dago jasorik zenbat ordu eman diren.

b) Ikastetxeei ez zaizkie programaren bidez banatzen HLE langileen orduak; NHBBZk egiten du banaketa, ikastetxeen beharren arabera.

2021-2022 ikasturtean egin dugu konparazio-azterketa, azken ikasturte horretan hobekuntzak egin direlako baliabideen esleipenean. Sare publikoan eta itunpeko sarean konparatzen badugu aplikatutako faktoreen<sup>7</sup> haztapenaren emaitzaren arabera esleitutako orduen ratioa, hornidura lanbide profilaren arabera berezita, taula hau lortzen dugu:

Ikastetxe arruntak		
21-22 ikasturtea	Publikoa	Itundua
Matrikulatutako ikasleak	57.689	32.427
<i>Pedagogia terapeutikoko irakasleak</i>		
Ikasleen kopurua, PTrako faktoreen arabera haztatua (A)	15.090	9.072
Programak esleitutako PT orduak (B)	3.804	973
Asteko zuzeneko arreta-orduen ratioa ikasleko (A/B)	0,25	0,11

<sup>7</sup> Orduen kalkuluan erabilitako faktoreak, 54. orrian azalduak.





<i>Entzumen eta hizkuntzako irakaslea</i>		
Ikasleen kopurua, EHrako faktoreen arabera haztatua (C)	13.411	5.473
Programak esleitutako EH orduak (D)	2.411	445
Asteko zuzeneko arreta-orduen ratioa ikasleko (C/D)	0,18	0,08
<i>Gutxiengoan irakasleak</i>		
Ikasleen kopurua, GUTXIENGOentzako faktoreen arabera haztatua (E)	28.742	4.703
Programak esleitutako gutxiengoentzako orduak (F)	2.433	257
Asteko zuzeneko arreta-orduen ratioa ikasleko (E/F)	0,08	0,05

"Esleitutako orduak / ikasleen kopuru haztatua" ratioa handiagoa da ikastetxe publikoetan, hiru lanbide profiletarako.

Hipotesi gisa ikastetxe publikoetako ratioa ikastetxe itunduetako ikasle kopuru haztatuari aplikatzen badiogu, ikastetxeentzako orduen banaketan erabilitako metodologiaren arabera, 1.994 orduko defizita lortzen dugu.

Lanbide profila	Orduen hornidura <sup>8</sup> (1)	Ikasle kopuru haztatua ikastetxe itunduetan	Zuzeneko arretaren ratioa ikastetxe publikoetan <sup>9</sup>	Zenbatetsitako ordu hornidura <sup>8</sup> (2)	Asteko irakastorduen defizita(1)-(2)
PT	973	9.072	0,25	2.287	-1.314
EH	445	5.473	0,18	984	-539
Gutxiengoak	257	4.703	0,08	398	-141
<b>Guztira</b>	<b>1.675</b>			<b>3.669</b>	<b>-1.994</b>

Beraz, PTko eta EHko baliabide pertsonalen eta gutxiengoentzako irakasleen esleipenean ez dago sare publikoaren eta itunpeko sarearen arteko proportziorik, matrikulatutako HLBPIak kontuan hartuta; ikasle kopuru berdinetarako eta neurri berberetarako, itunpeko sarearentzako baliabide pertsonalak gutxiago dira.

**Laburbilduz**, HLBPIei dagokionez, irakasle espezialisten orduen esleipena programa informatiko baten bitartez egiten da. Nahiz eta programa hori eta esleipen irizpideak berberak izan ikastetxe guztientzat, finantzaketan alde nabarmenak daude sare publikoaren eta itunpekoaren artean. Zenbait lanbide profiletan bakarrik konparatu ahal izan dira sare bateko eta besteko baliabide pertsonalen hornidurak.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasi andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen ardurduna.


Iruñean, 2022ko urriaren 20an

<sup>8</sup> HLBP ikasleei zuzenean arreta emateko irakastorduek astean.

<sup>9</sup> Asteko zuzeneko arreta orduen ratioa ikasleko, aurreko taulan kalkulatua.







Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak  
elektronikoki sinatua






## 1. ERANSKINA Aplikatu beharreko araudia

- Espainiako 1978ko Konstituzioa.
- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa.
- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, hezkuntzarako eskubidea arautzen duena.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa. Aldatuta dago Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez eta abenduaren 19ko 3/2020 Lege Organikoaren bidez.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarke-riaren aurrean osorik babestekoa.
- 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, integrala tratu-berdintasunerako eta diskriminazio ezerako (13. eta 14. artikulua).
- 334/1985 Errege Dekretua, martxoaren 6koa, hezkuntza berezia antolatzekoa.
- 943/2003 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, ikasle adimenez gaindohatuentzat hezkuntza sistemako mailen eta etapen iraupena malgutzeko baldintzak arautzen dituena.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duena.
- 5/2016 Errege Lege-dekretua, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren ezarpenaren egutegia luzatzeko presako neurriei buruzkoa.
- 1070/1990 Errege Dekretua, abuztuaren 31koa, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen arloan Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzekoa.
- 1996ko apirilaren 25eko Ebazpena, Hezkuntzako estatu idazkariak emana, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan derrigorrezko oinarrizko hezkuntzako curriculum proiektua nola egin arautzen duena.
- 26/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa.
- 37/2014 Foru Dekretua, apirilaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitateaz kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duena.





- 250/1992 Foru Dekretua, uztailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen funtzionamenduaren ondoriozko diru-sarrerak eta gastuak arautzen dituena.
- 66/2020 Foru Dekretua, urriaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan hezkuntza eta lanbide orientazioa arautzen duena.
- 133/1998 Foru Agindua, maiatzaren 8koa, Hezkuntza eta Kulturako kontseilariak emana, ezgaitasun psikiko, zentzumenezko eta mugimenezkoei loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak Bigarren Hezkuntzako ikastetxe arruntetan Oinarrizko Hezkuntzarekin jarrai dezaten eskolatzeko eta laguntza emateko prozedurari buruzko jarraibideak ematen dituena.
- 93/2008 Foru Agindua, ekainaren 13koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duena.
- 65/2012 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, ikastearen nahasmenduengatik eta arreta faltagatik nahasmenduarengatik (hiperaktibitatearekin) hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna arautzen duena Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, Nafarroako Foru Komunitatean.
- 72/2014 Foru Agindua, abuztuaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzen dituena.
- 4/2017 Foru Agindua, urtarrilaren 20koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatzeko, hurrengo mailara pasatzeko eta titulazioa lortzeko arauak ematen dituena.
- 229/2019 Ebazpena, apirilaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, PROEDUCAR-HEZIGARRI programaren deialdia arautzen duena. Programa horren xedea da hezkuntza-inklusioa eta eskola-arrakasta hobetzea Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta DBHko ikastetxeetan, 2019-2020 ikasturtean.

